



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko otsailaren 6a

11. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Unibertsitate Publikoari buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko eta 2005eko ekitaldietakoa, Comptos Ganberak egina ([2. or.](#)).
- San Adriángo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko eta 2005eko ekitaldietakoa, Comptos Ganberak egina ([38. or.](#)).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Unibertsitate Publikoari buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko eta 2005eko ekitaldietakoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko abuztuaren 7an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Nafarroako Unibertsitate Publikoari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2004ko eta 2005eko ekitaldietakoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2007ko abuztuaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Unibertsitate Publikoari buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko eta 2005eko ekitaldietakoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

I. Sarrera (3. or.).

LEHENDABIZIKO ZATIA

II. Nafarroako Unibertsitate Publikoa (3. or.).

III. Helburua (4. or.).

IV. Norainokoa (5. or.).

V. Iritzia (5. or.).

V.1. Nafarroako Unibertsitate Publikoa (5. or.).

V.2. Unibertsitatea-Gizartea fundazioa (7. or.).

VI. Azken ondorioa (7. or.).

VII. Kontu orokorraren laburpena (2004-2005) (10. or.).

VII.1. Nafarroako Unibertsitate Publikoa (10. or.).

VII.2. Unibertsitatea-Gizartea fundazioa (14. or.).

VIII. Arlo nabarmenei buruzko iruzkinak (16. or.).

VIII.1. 2005eko abenduaren 31ko finantza-egoera eta Kontu Orokorraren edukia (16. or.).

VIII.2. Langileak (18. or.).

VIII.3. Ikerketa-politika eta -proiektuak (21. or.).

VIII.4. Administrazio-kontratazioa (22. or.).

VIII.5. Dirusarrerak eta zordunak (25. or.).

VIII.6. Ibilgetua-Inbentarioa (26. or.).

VIII.7. Diruzaintza eta aldi baterako finantza-inbertsioak (26. or.).

VIII.8. Barneko auditoriako unitatea/Barneko kontu-hartzailletza (27. or.).

VIII.9. Adierazleak (28. or.).

VIII.10. Unibertsitatea-Gizartea fundazioa (33. or.).

BIGARREN ZATIA

IX. X Izpien diafraktometro baten erosketa-espedientean legea betetzeari buruzko fiskalizazioa (35. or.).

IX.1. Aurrekariak (35. or.).

IX.2. Kontratazio-espedientearen legezkotasunari buruzko iritzia (35. or.).

IX.3. Abian jarri zenekoa eta egungo egoera (36. or.).

IX.4. Azken ondorioa (37. or.).

I. SARRERA

Comptos Ganberaren 2006ko jarduketa-programak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren kontu orokorren legezketasun-fiskalizazioa barne hartu zuen, 2004ko eta 2005eko ekitaldietakoak, hain zuzen ere.

Lehendik, 2005eko ekainaren 6an, Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak eskatuta, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak erabaki zuen fiskalizazio-txostena eskatzea Comptos Ganberari, "Nafarroako Unibertsitate Publikoak X izpien diafraktometro baten erosketan legea betetzeari buruzkoa". 1997ko martxoan erosi bazen ere, berrikusketaren emaitzak txosten orokorrean erantsi dira.

Horrenbestez, txostena bi zatitan banatzen da, eta edukiak hauei buruzkoak dira:

- Lehendabiziko zatia. Unibertsitate Publikoaren Kontu Orokorreari buruzko iritzia, 2004ko eta 2005eko ekitaldiei dagozkiena (atalak: II.etik VIII.era).

- Bigarren zatia. X izpien diafraktometro baten erosketan legea betetzeari buruzko fiskalizaziotik ateratako ondorioak (IX. atala).

Landa-lana 2006ko urritik 2007ko urtarrila bitartean egin zuen talde batek, auditoretzako lau teknikaririk eta auditore batek osatua; halaber, Comptos Ganberako zerbitzu juridikoaren, informatika-zerbitzuaren eta administrazio-zerbitzuaren laguntza izan zuen taldeak.

Eskerrak ematen dizkiegu Unibertsitateko eta fundazioko langileei, lan hau egiteko eman diguten laguntzagatik.

LEHENDABIZIKO ZATIA

II. NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA

Nafarroako Unibertsitate Publikoa (aurrerantzean, Unibertsitatea) Nafarroako Parlamentuak sortu zuen 1987. urtean, zuzenbide publikoko erakundea da, Nafarroako Foru Komunitateari lotuta dago, eta goi-mailako hezkuntzako zerbitzu publikoaren ardura du. 1989/1990 ikasturtean hasi zen irakaskuntza jardunean.

Unibertsitateko gobernu-organo orokorrak hauek dira:

- Eremu orokorreko erakunde kolegiatuak: Gizarte Kontseilua, Gobernu Kontseilua, Unibertsitateko Klaustroa, Batzorde Aholku-emailea eta Zuzendaritza Kontseilua.

- Eremu orokorreko kide bakarreko organoak: errektorea (unibertsitateko agintari gorena), errektoreordeak, idazkari nagusia eta kudeatzailea.

Unibertsitatea sailetan dago egituratuta, eta, egun, 20 sail ditu, irakaskuntzako oinarritzko bost ikastetxe eta ikerketarako unibertsitate-institutu bat, bai eta unibertsitateko komunitateko kideentzako prestakuntza-zerbitzuak eta gizarte-laguntzako beste zerbitzu batzuk ere. Guztira, 24 titulazio ofizial eta 8 titulu bereki eskaintzen ditu.

Honakoek ezartzen dute haren oinarritzko araubide juridikoa: Unibertsitateari buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa eta hura garatzen duten arauak; Unibertsitatea sortzeari buruzko apirilaren 21eko 8/87 Foru Legea; Unibertsitateko Gizarte Kontseiluari buruzko abenduaren 9ko 20/94 Foru Legea; eta maiatzaren 12ko 110/2003 Foru Dekretuaren bidez onartutako Estatutuak; halaber, administrazio-kontratazioa arautzen duen foru-araudia ere aplikagarria da. Unibertsitatearen aurrekontu- eta kontabilitate-araubideari dagokionez, kontabilitate publikoko plan orokorrari jarraituz garatzen eta aurkezten ditu kontu orokorrak.

Unibertsitateak, bere jarduera gauzatzeko, "Unibertsitatea-Gizartea" izeneko fundazioa du; unibertsitatea bera da haren entitate sortzaile bakarra, eta 24.040,48 euroko sorrerako zuzkidura egin zion. Unibertsitateko Gobernu Batzarraren 1996ko abenduko erabakiaren bidez sortu zen; berezko izaera juridikoa du eta jarduteko ahalmen osoa, Nafarroako Foru Berriko 43. Legean ezarritakoari jarraituz.

Fundazioa interes sozialekoa da eta ez du inolako irabazi asmorik. Fundazioaren helburuak hauek dira: Unibertsitatearen eta eragile ekonomiko eta sozialen arteko elkarrizketa sustatu eta bultzatzea; erakunde horientzat interesa duten edozein motatako azterketak eta ikerketak sustatzea; Unibertsitatearen eta enpresaren arteko harremana sustatzea, Unibertsitateko tituludunen prestakuntzarako praktiken bidez, tituludun horiek enpresa munduan errazago sar daitezten; horiez gain, fundazioak kudeaketa-eginkizun hauek betetzen ditu: Unibertsitatearen titulu berekiak, Unibertsitateak duen Hizkuntzen Goi Mailako Eskola eta, 2005. urteaz geroztik, Unibertsitateko kultura-jardura. Unibertsitatearen eta fundazioaren arteko harremanak kontratu-programa bidez arautzen dira, 2002-2005 urteetako iraupenarekin.

Hauek dira Fundazioaren organoak: Patronatu-ko Batzordea eta Zuzendaritza Batzordea eta zuzendari-kudeatzailea. Lehenengo bietako kideak Unibertsitateak eta Gizarte Kontseiluak izendatzen ditu, eta, azken hori, Zuzendaritza Batzordeak.

Fundazioari aplikatzekoa zaion kontabilitateko araubidea apirilaren 30eko 776/1998 Errege Dekretuak arautu zuen. Dekretu horren bidez, kontabilitateko plan orokorra irabazi asmorik gabeko entitateei egokitzeko arauak onetsi ziren, bai eta

entitate horien aurrekontuen informazio-arauak ere.

2005. urteko ekitaldian, Unibertsitateak eta haren fundazioak zenbateko hauek aurkeztu zituen (gastuak eta sarrerak, milioi eurotan):

	Gastuak	Dirusarrerak	Langileak
Unibertsitate Publikoa	66,52	67,11	1.182
Unibertsitatea-Gizartea Fundazioa	6,61	6,77	49

Unibertsitateak, bestalde, fundazio eta enpresa hauetan parte hartzen du:

- 2003an “Estanislao de Aranzadi” Praktika Juridikoko Eskola izeneko fundazioa sortu zen; Unibertsitateak sorrerako funtsaren ehuneko 50eko partaidetza du, 18.509,98 euroko zenbatekoarekin. Fundazioaren helburua, oinarrian, zuzenbidean lizentziadunak praktiken bidez prestatzea eta profesionalki espezializatzea da. 2005. urtean, sorrerako funtsa zabaldu zenez, Unibertsitateak fundazioaren %33,04ko partaidetza du. 2005ean, fundazioak kontu hauek aurkeztu zituen; gastuak: 99.983,52 euro; sarrerak: 88.316,01 euro.

- “Amado Alonso” fundazio pribatua; sorrerako funtsari 1.202,02 euroko gutxieneko ekarpena egin zion –funts osoaren %33,33–. Fundazioaren xede nagusia da, batetik, sortzailearen bizitza eta lana zabaltzea, eta, bestetik, jarduera zientifikoa sustatzea sortzaileak jardun zuen arloetan, batik bat, filologiaren arloan. 2005ean, fundazioak kontu hauek aurkeztu zituen; gastuak: 31.465,06 euro; sarrerak: 15.000 euro.

- “Pamplona Convention Bureau, SL” Kapital publikoko sozietate bat da, eta gehiengoa duten bazkideak Nafarroako Gobernua eta Iruñeko Udala dira, bakoitzak sozietateko kapitalaren ehuneko 30 baitute. Unibertsitateak sozietatearen kapitalaren ehuneko bosteko partaidetza du –2.254 euro–. Haren xedea, batez ere, Iruñeko turismo eta biltzar hiriaren alderdiak sustatzea da.

- “Start Up Capital Navarra, SA” Haren xedea enpresak sustatzea da, haien kapitalean parte hartuz aldi baterako, eta, bestalde, partaidetza duen sozietateei aholku ematea. Nafarroako Gobernuak du partaidetzarik handiena sozietate publiko horretan eta Unibertsitateak, berriz, ehuneko bateko partaidetza du -30.000 euro–.

- “Sigma Gestión Universitaria” Interes ekonomikoko elkarte da, zenbait unibertsitatek sortua. Haren xede nagusia informatika-tresnak bereganatzea da, Unibertsitateko berezko kudeaketa erraz-

teko. Unibertsitate Publikoak %12,60ko partaidetza du –227.183 euro–.

- “Portal Universia, SA” Santander Central Hispano Taldeko sozietate bat da, eta haren xede nagusia hau da: zerbitzu integralak ematea interneten eta teknologia berrien arloan unibertsitatei eta partikularrei. Gaur egun, haren kapitalaren ehuneko 70 Espainiako 64 unibertsitatearen jabetza da, Santander Taldearen akzio dohaintza doakoari esker. Nafarroako Unibertsitate Publikoari 2.693 akzioren lagapena egin zitzaion, dohainik; akzio horietako bakoitzaren balio nominala hamar eurokoa da –26.930 euro–, hau da, kapital guztiaren %0,16.

“Jaime Brunet” fundazioak, halaber, Unibertsitatean du egoitza. Fundazio hori nortasun juridiko pribatukoa da, partikular batek “acto mortis” bidez sortua da, eta Unibertsitateak ez zuen inolako partaidetzarik izan sorrerako zuzkiduran. Hau da fundazioaren xedea: giza duintasunaren, oinarrizko askatasunaren eta giza eskubideen errespetua sustatzea.

III. HELBURUA

Nafarroako Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin bat, lan-egitasmoak barne hartu zuen Nafarroako Unibertsitate Publikoaren kontu orokorreari buruzko legezkotasun-fiskalizazioa, 2004ko eta 2005eko abenduaren 31n bukatu ziren ekitaldiei buruzkoa.

Txostenaren helburua puntu hauei buruzko gure iritzia adieraztea da:

- Unibertsitatearen 2004ko eta 2005eko ekitaldiei dagozkien kontu orokorrek islatzen duten edo ez, alderdi behinenetan, erakundearen ekonomia-eta finantza-egoera, aurrekontuen eta lortutako emaitzen kitapena, eta kontuei buruz guztiok onartuta eta adostuta aplikatzen diren printzipio eta arauak jarraiki osatu diren horiek.

- Erakundeak gauzatzen duen jarduerari ezarritzen zaion araudia bete den ala ez.

- 2005eko abenduaren 31n Unibertsitateak zuen finantza-egoerari buruz.

- Comptos Ganberak aurretik egindako fiskalizazio-txostenetan emandako gomendioak zenbateraino bete dituen.

Horiei buruzko iritzia osatze aldera, Nafarroako Unibertsitate Publikoak kudeatutako zenbait alderdi jakinetan lortutako eraginkortasun-, efizientzia- eta ekonomia-mailari buruzko azterketa egin da.

IV. NORAINOKOA

Comptos Ganberak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren kontu orokorren fiskalizazioa egin du, 2004ko eta 2005eko ekitaldiei dagozkienak; kontabilitate publikoko plan orokorrari jarraituz, honako hauek hartzen ditu bere baitan:

- Aurrekontua zenbateraino bete den, ekitaldiko aurrekontuaren emaitza eta diruzaintzako gerakina.

- Egoerari buruzko balantzea.

- Ekonomia- eta ondare-emaitzako kontua.

- Memoria

Unibertsitatea-Gizartea fundazioari dagokionez, kontabilitate-planaren berariazko egokitzapenari jarraiki, haren urteko kontuak hauek osatzen dituzte:

- Egoerari buruzko balantzea.

- Emaitzen kontua.

- Memoria

Lana egin da Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsiriko sektore publikoko auditoriako printzipioei eta arauari jarraituz, eta horiek Comptos Ganberak bere fiskalizazio-eskuliburuan garatu ditu. Lanean, halaber, inguruabarren eta lanaren helburuen arabera, beharrezkotzat jo ditugun hautapoba eta prozedura tekniko guztiak aplikatu ditugu. Aurrekontu-kontusailerako edo eragiketa jakinetarako erabili diren prozedura horietako batzuk laginketaren teknika eta azterketa selektiboa dira.

Guk egindako lanaren jomuga izan da, hortaz, kontu orokorren edukia eta koherentzia aztertzea, bai eta aplikaturiko oinarriko prozedura administratiboak ere; antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolako alderdi nabarmenenak ere ebaluatu dira. Horri guztiari gehitu zaizkio kudeaketa hobetzeko beharrezkotzat jotzen ditugun oharrak eta gomendioak.

Denbora-esparruari dagokionez, 2004ko eta 2005eko ekitaldiei buruzkoa bazen ere, gure lanaren jomuga nagusia 2005ekoaren azterketa izan da, aurretik azterketa berariazkoa behar izan

duten kontratazioko, kudeaketako eta estatistika-informazioko alorretako kasuetan izan ezik.

Gure azterketa-lanean Unibertsitate Publikoaren barne-kontrolako eta kontu-hartzaitzako unitateak egindako txostenak erabili ditugu, zehazki finantza-kontrolari, kontu-ixteari eta aztertutako ekitaldietako fiskalizazio-emaitzei buruzkoak. Bestalde, unitate horrek prestatutako hainbat lanpaper ere erabili dira, banku-berdinkatzei, eta hartzekodunentzako eta zordunentzako zirkularrei buruzkoak.

Ikasleen, irakasleen, tituludunen, kalitate- eta errendimendu-adierazleen bilakaerari buruzko informazioa "Unibertsitateari buruzko zifrak" ataletik eskuratu dira; atal horretan, Unibertsitateak aztertutako ekitaldiei buruz egindako memoriak biltzen dira.

Unibertsitatea-Gizartea fundazioari dagokionez, eta kontuan hartuta haren urteko kontuen gaineko auditoria aditu profesional independenteek egiten dutela, gure lana, batik bat, honakoa egiaztatzeraz bideratu dugu: kontratazio administratiboaren eta langileen kontratuen alorreko oinarriko printzipioak bete diren, eta, kontabilitatearen aldetik, koherenteak diren fundazioaren eta Unibertsitatearen arteko finantza-fluxuak, bai eta jarduera betetzen duen esparru orokorra ere.

Unibertsitatearen eta haren fundazioaren kudeaketa hobetzeko, gure ustez beharrezkoak diren iruzkin eta gomendioak jasotzen dira txostenean.

V. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren kontu orokorrak aztertu ditugu, 2004ko eta 2005eko ekitaldiei dagozkienak. Kontuak prestatzeko ardura, baita haien edukiarena ere, Unibertsitatearena da, eta laburbilduta jasota daude txosten honen VII. atalean.

V.1. NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA

V.1.1. 2004ko eta 2005eko kontu orokorrak

Unibertsitatearen 2004ko eta 2005eko ekitaldiei dagozkien kontu orokorrek islatzen dute, alderdi garrantzitsu guztietan, gastuen eta sarreraren aurrekontuen kitapena, abenduaren 31ko ondare-egoera eta eragiketen emaitza; horrezaz gain, bildutako informazioa behar bezala interpretatzeko eta ulertzeko, aurreko ekitaldian aplikatutakoekin bat datuz eta guztiok onartuak diren kontuei buruzko printzipioei eta arauari jarraituz, beharrezkoa eta nahikoa den informazioa eskaintzen du.

V.1.2. Legezkotasuna

Lanaren norainokoarekin bat, 2004ko eta 2005eko ekitaldietako Unibertsitatearen ekonomia- eta finantza-jarduera legezkotasun-printzipioari jarraiki gauzatu da; hala ere, defentsa juridikoko zerbitzuaren kontratazioan legezko estaldura gabezia hauteman da, eta haren fundazioari ezo-hiko aginduak ematerakoan ezarrita dagoen prozedura ez dela bete ere bai.

V.1.3. 2005eko abenduaren 31ko finantza-egoera

Alderdi garrantzitsu hauek adierazi nahi ditugu:

- 2005. urteko hasierako aurrekontua, guztira, 63,31 milioi eurokoa zen; aurrekontu horretan, 15,83 milioi euroko aldaketa egin zen, hau da, %25 gehitu zen. Behin betiko kredituek, beraz, 79,14 milioi euro egin zuten.

- Aitorturiko gastu-betebeharrek 66,52 milioi euro egiten dute, eta betetze-maila %84koa izan da; aitorturiko eskubideek, guztira, 67,11 milioi euro egiten dute, eta betetze-maila %85ekoa da.

- Gastuetako kapituluetan, hauexek dira nabarmentzen: langileak, betebeharren %55; ondasun arruntak eta zerbitzuak, %26; eta inbertsioak %14. Dirusarrerei dagokienez, kapitulu hauek nabarmentzen dira: transferentzia arruntak, tasa eta prezio publikoak eta kapital-transferentziak, %78, %17 eta %5, hurrenez hurren.

- Finantziario-superabitak edo aurrekontu-emaizta doituak 5,46 milioi euro egin du.

- Diruzaintzako gerakina positiboa izan da, 12,85 milioi eurokoa; kopuru horretatik, 7,25 milioi erabilera libreko izaerakoak dira, nahiz eta, dagoeneko, 6,83 milioi hitzartuta dauden. Dagoeneko hitzartuta dagoen kopuru horretatik, 4 milioi euro 2006ko aurrekontua orekatzeko erabili dira.

- Epe luzean, ez da zorpetzerik aurreikusten.

- Aurreztutakoa edo ekonomia- eta ondare-emaizta 0,33 milioi eurokoa da.

- Aktibo zirkulatzaila 19,77 milioi eurokoa da, epe laburrera eska daitekeenaren ia hiru halako -6,91 milioi euro-.

Finantza-egoera ona bada ere, honako hauek aipatu nahi ditugu:

1º. Transferentzien dirusarrerekiko mendetasun handia da. Hau da, Unibertsitatearen berezko dirusarrera aurrekontuaren %17koa da; gainerakoa, %83, transferentzien bidez jasotzen du, Nafarroako Gobernuak egindako transferentzietatik, batez ere. Dena dela, 2003tik eta 2005era arteko

transferentziak diru-kopuru txikiagokoak izan dira, %8 gutxiago jaso du; hau da, lehen 59, 94 milioi euro ziren, eta, ondoren, 55,38 milioi euro.

2º. 2003tik 2005era bitartean, halaber, kopuru handi guztietan balioak murriztu egin direla hauteman da: ekonomia- eta ondare-emaizta -%97-, aurrekontu-saldoa -%84-, diruzaintzako gerakina -%32-, eta laneko kapitala -%32-.

V.1.4. Aurreko fiskalizazio-txostenetako gomendioak betetzea

2001etik 2003ra bitarteko kontu orokorreki buruzko aurreko fiskalizazio-txostenari dagokionez, gomendio hauek bete direla adierazten dugu:

- Kontu orokorrek ondo samar islatzen dute Unibertsitateak gauzaturako jardueraren kontabilitatea eta aurrekontua. Horren haritik, adierazi nahi dugu lehen aldia dela Ganbera honek Unibertsitateari buruz egindako fiskalizazio-txosten batean finantza-egoera ona duela dioena.

- Zerbitzu orokorrak kontratatzeke espedientek egiteko moduan asko hobetu da, bai eta haien jarraipena eta kontrola egiteko moduan ere.

- Balio Erantsiaren Gainerako Zergari dagokionez, egoera normalizatu egin da.

- Administrazio- eta zerbitzuetako lantaldea finkatzen ari da, pixkanaka-pixkanaka.

- Ibilgetuaren eta inbentarioaren artean berdinkatze handi samarra dago.

- Ekitaldia ixtean, aurrekontua denboran egoz-teko arauak aplikatzen dira.

- Unibertsitate Publikoak aurkeztu duen memorian, Unibertsitatearen kudeaketa administratiboari buruzko informazioa ere erantsi du.

Horrenbestez, agerian geratu da Unibertsitateko kudeatzaileek gero eta ahalegin handiagoa egiten dutela gomendioak aplikatzeko. Dena dela, oraindik ere lehentasuna duten zenbait alderdi hobetu behar dira; besteak beste, hauek:

- *Erregelamendu bat prestatzea, ikerketa-proiektuen tramitazioa, kudeaketa eta kontrola arautuko dituena.*

- *Irakaskuntza Antolatzeke Planaren (IAP) jarraipena egitea, ikasturte amaieran plan horretan ezarritakoak zenbateraino bete diren ikusteko, eta desbideratzeak aztertzeke, halakorik izanez gero.*

- *Plan Estrategikoan ezarritako helburuak zenbateraino bete diren ikusteko, aldian-aldian txostenak egitea, garrantzia ematen zaiola desbideratzeen azterketari, halakorik izanez gero.*

- *Kontrolerako sistemaren bat zehaztea eta ezartzea, Unibertsitateko langile guztiak lanera joaten diren eta beren eginbeharrak betetzen dituzten jakiteko.*

- *Ikerketaren arloan, politika edo ildo estrategikoak zehaztea, ikerketetan ahalik eta baliabide gehien eta dedikazio handien biltzeko, eta, horrela, nazio- eta nazioarte-eremuan erreferente izatea lortzeko.*

- *Indarrean dagoen legedian aurreikusten diren neurriak aplikatzea, kobratzeko dauden zorrak, prezio publikoetakoak, kobratu ahal izateko. Horretarako, Nafarroako Gobernuarekin duten hitzarmena erabil daiteke.*

- *Unibertsitateak gauzatzen dituen jardueren kostuak kalkulatzeko sistema bat ezartzea.*

- *Memoriako kontabilitatearen atala osatzea.*

V.1.5. Eraginkortasun-, efizientzia- eta ekonomia-mailari buruz

Egindako lanetik, hauek nabarmendu nahi ditugu:

- Efizientzia eza gastu publikoaren kudeaketan, I+G eraikina ez baita erabili. Zentro hori –hasieran, berariazko helburua zein izango zen ez dago jasoa– 2001eko uztailan hasi zen tramitatzen eta 2004ko urrian onartu zen; inbertsioa, guztira, 2,64 milioi eurokoa izan zen, eta ekipamenduen kostua 0,14 milioi euro. Txosten hau idazten ari garenean, oraindik ere ia ez da erabili eraikina.

Efizientzia eza diafraktometroan ere sumatu da. Izan ere, 1997. urtean erosi zen, 0,11 milioi euro inbertitu ziren, eta 2004. urteaz geroztik ez da erabili. Gai horri buruz, txostenaren bigarren zatian arituko gara.

- 2005/2006 ikasturtean eman diren irakasgaien ehuneko zazpin, 10 ikasle baino gutxiago aritu dira.

- Irakasle eta Ikertzaileen (II) irakaskuntza-gaitasun teorikoa (ordutan neurtuta) ehuneko 2 hazi da 2003. eta 2005. urteen artean; guztira, 5.435 ordu izan dira. Irakaskuntza-lan erreala, ordea, teorikoaren ehuneko 79 izan da.

- Ikasleen satisfazio-maila jasotako irakaskuntzarekiko, 4,85ekoa izan da (10etik); 2003ko ikasturtean lortutako ia emaitza berbera –4,84–.

- Ikaslearen ikasketa-errendimendua, gainditutako kreditu-kopuruaren eta matrikulatutako kreditu-kopuruaren arteko portzentajearen bidez neurtuta, ehuneko 60koa izan da, batez beste, 2005ean; hau da, 2003an baino 5 puntu gehiago.

- Ikasleek ikasketak bukatzeko behar izaten dituzten batez besteko urte-kopurua 2005ean, 5,23 urtekoa izan da; 2003an ere batez bestekoa oso antzekoa izan zen –5,27 urte–.

- 2005/2006 ikasturtean, 751 ikaslek utzi diote ikasteari; hau da, ikasturte berean matrikulatutako- en ehuneko 10ek.

V.2. UNIBERTSITATEA-GIZARTEA FUNDAZIOA

V.2.1. 2004ko eta 2005eko urteko kontuak

2004ko eta 2005eko ekitaldiei buruzko auditoria egiteko fundazioak kontratatutako profesional independenteen ustez, “urteko kontuek ondo islatzen dituzte, alderdirik behinenetan, fundazioak abenduaren 31n zuen ondare- eta finantza-egoera, baita aipatutako datan amaitu zen urteko ekitaldian gauzatutako eragiketen emaitzak ere; kontuek, bestalde, horiek behar bezala interpretatzeko eta ulertzeko, aurreko ekitaldian aplikatutakoekin bat datozen eta guztiok onartuak diren kontabilitate-printzipioei eta arauetara jarraituz, beharrezkoa eta nahikoa den informazioa ere eskaintzen dute”

V.2.2. Legezketasuna

Lanaren norainokoarekin bat, fundazioaren jarduera ekonomikoa eta finantzarioa, orokorrean, legezketasun-printzipioari jarraiki gauzatu da.

VI. AZKEN ONDORIOA

Ondorioz, amaierako laburpen gisa, hona Ganbera honek adierazten duena:

- 2004ko eta 2005eko Unibertsitatearen kontu orokorrek ondo islatzen dute fiskalizatutako ekitaldietako ondarea eta epe horretan gauzatutako jarduerak; halaber, lehen aldia da Ganbera honek egoera ona dela esaten duena.

- Unibertsitateak gauzatzen dituen jardueretara ezartzen zaien araudia orokorrean betetzen duela ikusi dugu.

- Kudeaketarako lehentasuna duten hainbat gomendio ez dira aplikatzen oraindik ere; horien artean, garrantzi berezia dutelako, hauek nabarmendu nahi ditugu: ikerketa-proiektuak kudeatzeko araudia egitea; Irakaskuntza Antolatzeke Plana kontrolatzea eta haren jarraipena egitea; langileen presentzia kontrolatzeko sistema bat ezartzea, eta ikerketetarako estrategia-ildoak zehaztea.

- Horrezaz gain, I+G zentroa abian jarri behar da, jarduerak behar bezala planifikatuta; horrela, errentagarritasuna epe luzera zirtatuko baita, ikerketa-irakasleen arloan zein ekonomiaren arloan.

- Jarraian dagoen taulan, zenbait ratio eta magnitude kontuan hartuta, Unibertsitatearen egoera 2005ean eta 2003ko ekitaldiaz geroztiko bila-kaera alderatzen dira –Ganbera honek egindako azken fiskalizazioa–.

2005eko egoera eta 2003ko ekitaldiarekiko aldea

Magnitudea/Adierazlea	2005	2003arekiko aldaketa, %tan
Egindako aurrekontuaren gastua, guztira	66.519.330	0
Langileen gastua	36.788.393	16
guztiaren aldean, langileen % gastua	%55	15
Funtzionamendu-gastuak	57.047.965	11
Gastuak inbertsioetan	9.467.209	(37)
Aurrekontuko diru-sarrerak, guztira	67.106.513	(4)
Diru-sarrera berekiak	11.725.182	14
Dirulaguntzak	55.381.332	(8)
Dirulaguntzekiko mendekotasuna	83%	(2)
Aurrekontu-saldoa	587.184	(84)
Diruzaintzako gerakina	12.854.385	(32)
Diruzaintzako atxiki gabeko gerakina	7.245.500	(47)
Emaizta ekonomiko eta ondarekoa	327.430	(97)
Langile-kopurua	1.182	6
AZL-kopurua	381	10
Irakasle- eta Ikertzaile-kopurua	801	4
II —LOB— kopurua	682	2
Irakasle elkartu-kopurua	308	7
Behin-behineko irakasleak (%)	56	6
Ikerketa-kontratu eta -proiektuen kopurua	149	(14)
Ikerketa bidez lortutako baliabideak, guztira	17.786.610	0
Ikerketa bidez lortutako baliabide pribatuak, guztira	1.644.020	(10)
Ikerketa-taldeen kopurua	98	9
Irakurritako tesi-kopurua	46	(4)
Aitorturiko seiurteko-kopurua	391	27
Eskainitako titulazio ofizialak	24	0
Matrikulatutako ikasle-kopurua	7.396	(4)
Eskainitako eskola-postuak	1.735	4
Lehendabizikoz matrikulatutako ikasle-kopurua	1.635	(3)
Graduatu diren ikasle-kopurua	1.250	(7)
Ikasle/LOB irakasleen ratioa	10,84	(6)

Azterketa hori egin ondoren, hauek nabarmendu behar ditugu:

a) Aurrekontuaren guztizko gastua ia berbera da 2003an eta 2005ean; euro konstanteetan, ikusten da ehuneko 7 murriztu dela.

b) Langileen gastuei dagokienez, hazkunde nominala ehuneko 16koa izan da 2003koaren aldean; hau da, 2005ean guztira gastatukoaren ehuneko 55.

c) Inbertsioetan, gastua ehuneko 37 murriztu da.

d) Aurrekontuetako guztizko dirusarrerak behera egin du, ehuneko 4, hain zuzen; euro konstanteetan, ehuneko 11 egin du behera. Dirusarrera berekiek ehuneko 14 egin dute gora; transferentzia bidez eskuratutako dirusarrerak, ordea, gutxiago izan dira, ehuneko 8, hain zuzen. Dena dela, transferentzia bidez eskuratutako dirusarrerak dira oraindik ere Unibertsitatearen funtsezko diru-iturri (dirusarrera guztien ehuneko 83).

e) Langile-kopuruak gora egin du, ehuneko 6 hain zuzen; bereziki, AZL-langileena izan da gorakada –ehuneko 10–. II-langileen kopuruak ehuneko 4 egin du gora, eta irakasle elkartuen kopuruak, berriz, ehuneko 7 egin du gora.

f) II-langileen artean, behin-behineko langileek –elkartuek eta laguntzaileek, batik bat– irakasle guztien ehuneko 56 egiten dute, 2003an baino ehuneko 6 gehiago.

g) Ikerketaren arloan, hauek dira nabarmendu beharreko alderdiak: ikerketa-talde gehiago dago eta aitorturiko seiurtekoen kopuruak gora egin du; ikerketaren arloan 2005ean eskuratutako baliabideak eta 2003an eskuratutakoak ia berberak dira; eta iturri pribatuetatik gutxiago eskuratu dira, ehuneko 10 gutxiago, hain zuzen.

h) Ikasleei dagokienez, joera beheranzkoa da, aurreko txostenean adierazi genuen joerarekin jarraitzen dugu; matrikula-kopuruak ehuneko 4 egin du behera, lehendabizikoz matrikulatzen direnenak ehuneko 3, eta graduatu diren ikasle-kopuruak ehuneko 7.

i) Ikasle-kopuruak behera egin du eta irakasle-kopuruak gora; beraz, horrek esan nahi du, ikasle/lanaldi osoko baliokide (LOB) diren irakasleen ratioari erreparatuta, 2003an, irakasle bakoitzeko

11,51 ikasle zirela, eta 2005ean, bestalde, 10,84 ikasle.

2005eko kontu orokorreari eragiten ez badie ere, nahitaezkoa da jarraian aipatzen ditugunak jakinaraztea:

- Tuterako campuseko lanak egiten 2006an hasi ziren, eta 20 milioi euro inguruko kostua izanen dutela aurreikusten da.

- 2006ko abenduan onartutako hitzarmena dela eta, AZLri ezartzen zaion araubide juridikoa foru-araudiari egokitu behar zaio, Unibertsitatearen beraren Estatutuei jarraiki, eta Comptos Gambera honek aurreko txostenetan adierazitakoa betez.

- Txosten hau idazten ari garen unean, 2007. urterako AZLen lanpostuen zerrenda onartu da, eta, ondorioz, auditore-postu bat sortu; lanpostu hori betetzen denean, kontu-hartzailearen lanpostua kendu egingen da. Lanpostu hori, indarrean dauden estatutuei jarraiki, zuzenean kudeatzailetzaren mende egonen da. Gure ustez, eta aurreko fiskalizazio-txostenean adierazi genuen bezala, kudeatzailetzaren mende egoteak –aipatutako estatutuen babesean– bateraezinak diren eginkizunak modu desegokian kontzentratzea eta Unibertsitatearen barne-kontrolerako sistema nabarmen ahultzea dakar; eta, gainera, Gizarte Kontseiluak betetzen duen ekonomia-kontrolaren funtzioari eraginen dio.

Bestalde, eta aurreko txostenean adierazi bezala, komeni da azpimarratzea, Europako Goi Mailako Hezkuntza Eremua 2010. urtean eraikitzea erronka handia dela Espainiako eta Europako unibertsitate publikoentzat, eta horrek jarduera berriz antolatzea eskatzen diela, Eremua osatzen duten oinarrizko printzipioak betetze aldera. Printzipio horiek dira: kalitatea, mugikortasuna, aniztasuna eta lehiakortasuna. Prozesu horrek, halaber, eta besteak beste, egungo titulazioen definizio berri sakona ekarriko du.

Eta azkenik, nahiz eta egungo araudiaren araberako Foru Komunitateko administrazioaren eskumenekoa izan, Nafarroako Unibertsitate-sistemaren zenbait alderdi edo gai arautzea nahitaezkoa litzateke; besteak beste, hauek: kontratupeko irakasleen araubide juridikoa eta ordainsariari dagokion araubidea, urteko kontuak, kalitateari buruzko kanpo-ebaluazioa eta programen finantziarioa.

VII. KONTU OROKORRAREN LABURPENA (2004-2005)

VII.1. NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLI- KOA

AKTIBOA	2005	2004
A) Ibilgetua	149.307.231,24	149.837.461,01
I. Erabilera orokorrerako inbertsioak	0,00	0,00
II. Ibilgetu ez-materialak	1.440.484,19	1.753.734,99
1. Ikerketa- eta garapen-gastuak	0,00	0,00
2. Industria-jabetza	52.554,13	55.694,06
3. Aplikazio informatikoak	4.183.964,81	4.099.821,71
4. Jabego intelektuala	0,00	0,00
5. Finantza-errentamenduko ondasunen gaineko eskubideak	0,00	0,00
6. Bestelako ibilgetu ez-materiala	780,99	0
7. Homidurak	0,00	0,00
8. Amortizazioak	-2.796.815,74	-2.401.780,78
III. Ibilgetu materialak	147.530.414,83	147.747.093,34
1. Lursailak eta eraikinak	134.936.461,21	131.394.823,07
2. Instalazio teknikoak eta makineria	32.787.088,54	27.677.921,57
3. Tresneria eta altzariak	13.182.259,35	13.111.515,65
4. Beste hainbat ibilgetu	39.101.291,86	45.872.410,26
5. Homidurak	0,00	0,00
6. Amortizazioak	-72.476.686,13	-70.309.577,21
IV- Kudeatutako inbertsioak	0,00	0,00
IV. Kudeatutako inbertsioak	0,00	0,00
V. Finantza-inbertsio iraunkorrak	336.332,22	336.632,68
1. Epe luzerako baloreen zorroa	330.118,86	330.118,86
2. Epe luzerako bestelako inbertsio eta kredituak	0,00	0,00
3. Epe luzerako eraturako fidantza eta gordailuak	6.213,36	6.513,82
B) Zenbait ekitalditan banatu beharreko gastuak	0,00	0,00
C) Aktibo zirkulatzailerak	19.767.186,75	24.380.333,86
I. Izakinak	0,00	0,00
II. Zordunak	4.781.846,97	7.098.820,10
1. Aurrekontu-zordunak	5.618.118,39	7.806.459,90
2. Aurrekontuetatik kanpoko zordunak	146.373,82	238.910,16
3. Beste erakunde publiko batzuen konturako baliabideak administratzeagatiko zordunak	0,00	0,00
4. Administrazio publikoak	413.721,85	297.499,19
5. Bestelako zordunak	11.596,42	-1.314,45
6. Homidurak	-1.407.963,51	-1.242.734,70
III. Aldi baterako finantza-inbertsioak	5.366.291,99	4.319.768,82
1. Epe laburrerako baloreen zorroa	5.368.190,02	4.321.426,85
2. Epe laburrerako bestelako inbertsio eta kredituak	0,00	0,00
3. Epe laburrerako eraturako fidantza eta gordailuak	-1.898,03	-1.658,03
4. Homidurak	0,00	0,00
IV. Diruzaintza	9.619.047,79	12.961.744,94
V. Aldizkotze-doitzeak	0,00	0,00
Guztira	169.074.417,99	174.217.794,87

PASIBOA	2005	2004
A) Funts berekiak	162.161.616,16	162.432.458,68
I. Ondarea	122.070.638,75	128.320.629,69
1. Ondarea	116.129.287,25	122.935.230,56
2. Adskribatuta jasotako ondarea	0,00	0,00
3. Lagata jasotako ondarea	5.385.399,13	5.385.399,13
5. Adskribatuta emandako ondarea	0,00	0,00
6. Lagata emandako ondarea	555.952,37	0,00
7. Erabilera orokorrerako ondarea	0,00	0,00
II. Erreserbak	0,00	0,00
III. Aurreko ekitaldietako emaitzak	39.763.547,45	29.667.615,53
1. Aurreko ekitaldietako emaitza positiboak	41.486.625,53	31.390.693,61
2. Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak	-1.723.078,08	-1.723.078,08
IV. Ekitaldiko emaitzak	327.429,96	4.444.213,46
B) Arrisku eta gastuetarako probisioak	0,00	0,00
C) Epe luzeko hartzekodunak	0,00	0,00
D) Epe laburreko hartzekodunak	6.912.801,83	11.785.336,19
I. Obligazioen eta bestelako balore negoziagarrien jaulkipenak	0,00	0,00
II. Kreditu-entitateekiko zorrak	0,00	0,00
III. Hartzekodunak	6.912.801,83	11.785.336,19
1. Aurrekontuko hartzekodunak	5.553.207,82	10.247.291,08
2. Aurrekontukoak ez diren hartzekodunak	378.491,66	388.082,93
3. Beste ente publiko batzuen konturako baliabideak administratzeagatiko hartzekodunak	0,00	0,00
4. Administrazio publikoak	950.644,72	1.123.982,16
5. Bestelako hartzekodunak	-13.983,49	-12.092,98
6. Epe laburrean jasotako fidantza eta gordailuak	44.441,12	38.073,00
IV. Aldizkotze-doitzeak	0,00	0,00
Guztira	169.074.417,99	174.217.794,87

ZOR	2005	2004
A) Gastuak	66.591.019,78	61.845.039,29
I. Zerbitzuen eta gizarte-zerbitzuen funtzionamendu-gastuak	63.615.738,39	58.603.957,83
I. I. Langile-gastuak	37.492.832,66	34.904.404,26
1. Soldatak, lansariak eta antzekoak	32.886.659,83	30.780.082,25
2. Gizarte-zamak	4.606.172,83	4.124.322,01
I.III. Ibilgetuko amortizazioetarako zuzkidurak	9.407.474,76	7.543.302,77
I. IV. Trafiko-homiduretako aldaketak	165.228,81	82.564,77
1. Homigai-bariazioa eta kobraezinak diren kredituen galera	165.228,81	82.564,77
I. V. Beste kudeaketa-gastu batzuk	16.546.045,78	16.069.797,37
1. Kanpoko zerbitzuak	16.543.599,96	16.067.373,63
2. Zergak	2.445,82	2.423,74
I. VI. Finantza-gastuak eta antzekoak	931,32	2.251,07
1. Zorrak direla eta	931,32	2.251,07
I. VIII. Kanbioan izaniko alde negatiboak	3.225,06	1.637,59
B) Transferentziak eta dirulaguntzak	2.974.921,73	3.043.832,90
I. I. Transferentzia arruntak	14.000,00	6.000,00
I. II. Dirulaguntza arruntak	2.960.921,73	3.037.832,90
C) Ezohiko galerak eta gastuak	359,66	197.248,56
I.I. Ibilgetutik heldu diren galerak	0,00	5.286,37
I.III. Ezohiko gastuak	359,66	1.200,00
I.IV. Beste ekitaldi batzuetako gastuak eta galerak	0,00	190.762,19
Aurrezpena*	327.429,96	4.444.213,46

HARTZEKO	2005	2004
A) Diru-sarrerak	66.918.449,74	66.289.252,75
I.I. Zerbitzuak ematea	9.774.270,49	7.699.312,18
1. Zerbitzuak emateagatiko edo jarduerak egiteagatiko tasak	36.715,09	33.089,19
2. Zerbitzuak emateagatiko edo jarduerak egiteagatiko prezio publikoak	9.311.657,03	7.497.741,43
3. Jabetza pribatua norik beretzat erabili edo aprobetxamenduagatiko prezio publikoak	425.898,37	168.481,56
I.III. Beste diru-sarrera batzuk, kudeaketa arrunta dela eta	1.768.005,91	1.960.943,61
1. Itzulketak	68.739,71	22.657,54
3. Beste diru-sarrera batzuk, kudeaketa dela eta	1.490.609,73	1.696.552,90
a) Diru-sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk	1.490.609,73	1.696.552,90
6. Beste korritu eta antzeko diru-sarrerak	206.991,96	241.576,13
a) Beste korritu batzuk	206.991,96	241.576,13
7. Kanbioan izaniko alde positiboak	1.664,51	157,04
I. III. Transferentziak eta dirulaguntzak	55.364.805,24	55.449.952,86
1. Transferentzia arruntak	46.287.789,96	44.442.053,23
2. Dirulaguntza arruntak	5.756.439,74	5.787.831,54
3. Kapital-transferentziak	2.551.610,75	4.674.516,30
4. Dirulaguntzak	768.964,79	545.551,79
I.IV. Ezohiko irabaziak eta diru-sarrerak	11.368,10	1.179.044,10
1. Ibilgetutik heldu diren etekinak	0,00	158.996,61
3. Aparteko diru-sarrerak	11.368,10	61.505,46
4. Beste ekitaldi batzuetako diru-sarrera eta irabaziak	0,00	958.542,03
Desaurrezkoa		

Gastuen aurrekontu-likidazioa (eurotan)

Kontzeptua	2005eko betetzea	2004ko betetzea
I. kapitulua. Langile-gastuak	36.788.392,90	34.140.959,66
2. kapitulua. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	17.305.982,73	16.998.137,19
3. kapitulua. Finantza-gastuak	4.156,38	3.888,66
4. kapitulua. Transferentzia arruntak	2.953.588,40	3.012.351,67
6. kapitulua. Inbertsio errealak	9.467.209,16	17.923.019,23
8. kapitulua Finantza-aktiboak	0,00	67.914,32
Guztira	66.519.329,57	72.146.270,73

Diru-sarrereren aurrekontu-likidazioa (eurotan)

Kontzeptua	2005eko betetzea	2004ko betetzea
III. kapitulua. Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak	11.391.541,73	9.681.302,66
IV. kapitulua. Transferentzia arruntak	52.039.291,70	50.346.857,40
V. kapitulua. Ondareetako diru-sarrerak	332.527,98	370.836,67
VI. kapitulua. Inbertsio errealen besterentzea	1.111,55	0,00
VII. kapitulua. Kapital-transferentziak	3.342.040,42	5.220.088,11
Guztira	67.106.513,38	65.619.084,84

VII.2. UNIBERTSITATEA-GIZARTEA FUNDAZIOA

Egoera-balantzea (eurotan)

AKTIBOA

Kontzeptua	2005	2004
B) Ibilgetua		
11. Ibilgetu ez-materialak	57.176,20	56.142,08
5. Aplikazio informatikoak	103.859,22	94.009,94
6. Aurrerakinak	11.155,00	
8. Amortizazioak	-57.838,02	-37.867,86
IV. Beste ibilgetu material batzuk	39.879,65	60.640,59
2. Instalazio teknikoak eta makineria	20.122,43	20.122,43
3. Beste instalazio, tresneria eta altzari batzuk	86.866,63	83.071,42
5. Beste hainbat ibilgetu	77.457,36	77.457,36
7. Amortizazioak	-144.566,77	-120.010,62
Guztira B	97.055,85	116.782,67
D) Aktibo zirkulatzailea		
III. Bere jard. erabiltzaileak eta beste zordun batzuk	1.047.697,18	1.569.032,82
IV. Bestelako zordunak	36.492,02	61.894,18
1. Salmentengatiko eta zerbitzuak emateagatiko bezeroak	23.844,00	51.414,64
4. Bestelako zordunak	10.741,62	10.287,62
6. Administrazio publikoak	9.154,74	191,92
7. Homidurak	-7.248,34	
VI. Diruzaintza	1.335.044,70	797.516,29
VII. Aldizkotze-doitzeak	40.729,85	44.299,60
Guztira D	2.459.963,75	2.472.742,89
Guztira	2.557.019,60	2.589.525,56

PASIBOA

Kontzeptua	2005	2004
A) Funtz berekiak		
I. Fundazioaren zuzkidura/Funtz soziala	278.444,57	278.444,57
III. Erreserbak	438.438,47	316.068,25
2. Beste erreserba batzuk	438.438,47	316.068,25
V. Ekitaldiko soberakinak	164.645,03	122.370,22
Guztira A	881.528,07	716.883,04
B) Zenbait ekitalditan banatu beharreko diru-sarrerak		
1. Dirulaguntzak, dohaintzak eta kapital-legatuak eta bestelakoak	-	1.726,00
3. Zenbait ekitalditan banatu beharreko bestelako diru-sarrerak	-	1.726,00
Guztira B	-	1.726,00
C) Epe luzeko hartzekodunak		
IV. Bestelako hartzekodunak	3.671,93	1.304,90
3. Epe luzerako jasotako fidantza eta gordailuak	3.671,93	1.304,90
Guztira D	3.671,93	1.304,90
E) Epe laburreko hartzekodunak		
III. Epe laburreko zorrak, taldeko erakundeekiko eta elkartuekiko	402.560,02	361.166,67
1. Taldeko entitateekiko zorrak	402.560,02	361.166,67
IV. Onuradunak-Hartzekodunak	6.552,70	47.632,33
V. Merkataritzako hartzekodunak	243.066,08	318.777,34
2. Erosketengatiko edo zerbitzuak emateagatiko zorrak	243.066,08	318.777,34
VI. Merkataritzaz kanpoko beste zor batzuk	137.243,96	178.648,92
1. Administrazio publikoak	137.243,96	160.147,14
4. Ordaintzeko dauden ordainsariak		18.259,84
5. Epe laburrean jasotako fidantza eta gordailuak		241,94
VIII. Aldizkotze-doitzeak	882.396,84	963.386,36
Guztira E	1.671.819,60	1.869.611,62
Guztira	2.557.019,60	2.589.525,56

ZOR	2005	2004
A) Gastuak		
I. Dirutako laguntzak eta beste		
a) Dirutako laguntzak	3.732.145,43	3.930.895,32
4. Langile-gastuak		
a) Soldatak, lansariak eta antzekoak	1.273.066,90	1.159.837,02
b) Gizarte-zamak	352.401,66	335.344,19
5. Ibilgetuko amortizazioetarako zuzkidurak	44.526,31	49.266,82
6. Bestelako ustiatze-gastuak		
a) Kanpoko zerbitzuak	1.175.466,96	1.501.056,82
b) Zergak	17.496,45	-7.526,92
c) Beste gastu batzuk, kudeaketa arruntarenak	57,32	48,45
7. Jardueraren homiduren aldaketa	12.385,94	
I. Ustiapeneko emaitza positiboak	154.843,06	105.868,97
8. Finantza gastuak eta antzeko gastuak		
c) Beste batzuekiko zorrak eta antzeko gastuak	-	534,85
II. Finantza-emaitza positiboak	2.154,88	730,56
III. Jarduera arruntan emaitza positiboak	156.997,94	106.599,53
I 4. Ezohiko gastuak	300,00	
I 5. Beste ekitaldi batzuetako gastuak eta galerak	-	32.886,12
IV. Ezohiko emaitza positiboak	7.647,09	15.770,69
V. Zerga aurreko emaitza positiboak	164.645,03	122.370,22
VI. Ekitaldiko soberakin positiboa (aurrezkia)	164.645,03	122.370,22

HARTZEKO	2005	2004
B) Diru-sarrerak		
I. Entitateak bere jardueraren ondorioz duen zenbatekoa	6.762.369,22	7.074.775,34
a) Erabilera eta kideen kuotak	2.542.924,81	2.718.800,90
b) Sustapen, babesle eta laguntzaileak direla-eta izaniko diru-sarrerak	3.987.069,32	4.016.120,25
c) Ekitaldiaren emaitzari egotzitako dirulaguntza, dohaintza eta legatuak	232.375,09	339.854,19
d) Dirulaguntzen, dohaintzen eta legatuen itzulketak		
4. Ustiapeneko bestelako diru-sarrerak		
a) Diru-sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk	20,81	15,33
7. Beste korritu eta antzeko diru-sarrerak		
c) Beste korritu batzuk	2.154,88	1.265,41
I 2. Aparteko diru-sarrerak	4.683,75	
I 3. Beste ekitaldi batzuetako diru-sarrerak eta irabaziak	3.263,34	48.656,81

VIII. ARLO NABARMENI BURUZKO IRUZKINAK

Jarraian, lanaren ondorio garrantzitsuenak adieraziko ditugu.

VIII.1. 2005eko ABENDUAREN 31ko FINANTZA-EGOERA ETA KONTU OROKORRAREN EDUKIA

2005eko aurrekontuaren likidazioa

2005eko aurrekontuaren likidazioaren alderdi aipagarrienak hauexek dira:

- 2005. urteko hasierako aurrekontua, guztira, 63,31 milioi eurokoa zen; aurrekontu horretan, 15,83 milioi euroko aldaketa egin zen, hau da, %25 gehitu zen. Ondorioz, behin betiko kredituek gora egin zuten, eta 79,14 milioi euro egin zuten.

- Aldaketa horiek kredituak erantsi direlako -8,60 milioi- eta kredituak handitu eta gehiago sortu direlako -7,23 milioi- izan dira.

- Gastuen betebeharrak aitortuak 66,52 milioi euro egiten dute, eta betetze-maila ehuneko 84koa da; aitorturiko eskubideek, guztira, 67,11 milioi euro egiten dute, eta horien betetze-maila ehuneko 85koa da.

- Gastuetako kapituluetan, hauexek dira nabarmenenak: langileak, betebeharren ehuneko 55; ondasun arruntak eta zerbitzuak, ehuneko 26; eta inbertsioak, ehuneko 14.

- Dirusarreretan, berriz, kapitulu hauek dira aipatzekoak: transferentzia arruntak, tasa-prezio publikoak eta kapital-transferentziak, ehuneko 78, 17 eta 5, hurrenez hurren.

- Guztira, 61,44 milioi euro ordaindu dira, eta, urte amaieran, guztira, 5,09 milioi euro falta dira ordaintzeko; hau da, aitortutako betebeharrak guztien ehuneko zortzi.

- 62,81 milioi euro kobratu dira, eta 4,29 milioi kobratzeko daude; hau da, ekitaldian aitortutako betebeharren ehuneko 6.

- Aurrekontu-saldoak 0,59 milioi euro egiten du. Ekitaldiko aurrekontu-emaizta doituak 5,46 milioi euro egiten du; hau da, finantzazio-superabita lortu da, zenbateko hori egiten duena.

- 2005eko diruzaintzako gerakinak 12,85 milioi euro egiten du; zenbateko horretatik, 5,61 milioi atxikiak dira. Ekitaldia ixtean, atxiki gabeko zatia ia osorik hitzartuta zegoen.

- Finantzazio- eta aplikazio-bideak, 100 euro bakoitzeko, jarraian erantsita dagoen taulan ikus daitezke:

Finantzazio-iturriak	Zenbatekoa	Aplikazioa	Zenbatekoa
Diru-sarrera berekiak	17	Funtzionamendu-gastuak	86
Transferentzien ondoriozko diru-sarrerak	83	Inbertsioak	14
Guztira	100	Guztira	100

Ikusten denez, Unibertsitatearen finantzabideek lotura nabarmena dute jasotako transferentziekin, Nafarroako Gobernuak egiten dituenekin batez ere; horrela, dirusarreretako 100 euro bakoitzeko, 83 inguruk transferentzia horiek ditu jatorri. Dirusarrerak berekiek, gehienbat matrikula-eskubideek, 17 euro hartzen dituzte.

Aplikazio edo xedeari dagokionez, gastatutako 100 euroko, 86 funtzionamendu-gastuak finantzatzeko dira -langileak, ondasunak eskuratzea eta

zerbitzuak eta transferentziak- eta 14 euro, berriz, inbertsioetarako.

2003⁽¹⁾ -2005 bilakaera

Alderdi garrantzitsu hauek adierazi nahi ditugu:

- 2003ko euro konstanteetan, jarraian dagoen taula honetan islaturik dago zein izan den aurrekontuko gastuen eta dirusarreraren bilakaera aztertutako epean:

(1) 2003ko ekitaldia hartu da, Ganbera honek auditatu duen azkena delako.

Gastuak	2003	2004	2005
Eragiketa arruntak	100	102	103
Kapital-eragiketak	100	116	59
Finantza-eragiketak	-	-	-
Aitortutako betebeharrak, guztira	100	105	93

Diru-sarrerak	2003	2004	2005
Eragiketa arruntak	100	94	95
Kapital-eragiketak	100	66	40
Finantza-eragiketak	-	-	-
Kitaturiko eskubideak, guztira	100	90	89

Aurreko tauletatik ondorioztatzen denez, Unibertsitatearen gastuen aurrekontua ehuneko zazpi murriztu da, modu errealean; eta dirusarreretan, berriz, murrizketa ehuneko 11koa izan da.

Eragiketa arruntetan, gastuek gora egin dutela adierazi nahi dugu –ehuneko hiru–, eta dirusarrek, berriz, behera egin dutela –ehuneko bost–.

Kapitaleko gastuetan zein dirusarreretan, beherakada nabarmena izan dela ikus daiteke: inbertsio-gastuek ehuneko 41 egin dute behera, eta kapital-transferentziek ehuneko 60.

• Hurrengo taulan, Unibertsitatearen finantza-iturriek 2003tik 2005era izaniko bilakaera islatzen da:

Finantzaketa	2003	2004	2005
Berekia	15	15	17
Besterena	85	85	83

Kanpoko finantzazioa -transferentziak– da, aztertutako aldi horretan, Unibertsitatearen finantza-iturri adierazgarriena, eta harekiko mendekotasuna handia da.

• 2004. eta 2005. urteetan ez da izan, modu formalean, finantza-hitzarmenik Nafarroako Gobernuarekin. Gobernuak egindako ekarpenak, eta 2003. urtearekiko bilakaera nolakoa izan den, hurrengo taulan adierazten dira:

Dirusarrerak	2003	2004	2005
Finantziario nagusia	42.503.780,00	39.845.792,00	43.565.398,99
Lansarien homologazioa	1.642.902,29	1.824.916,43	1.992.000,00
Proiektuak	2.959.474,00	2.818.282,57	651.199,00
Transferentzia arruntak, guztira	47.106.156,29	44.488.91,00	46.208.597,99
Inbertsioak	6.834.135,59	4.674.516,30	2.500.000,00
Tuteran ikasketak ezartzea	-	-	51.610,76
Kapital-transferentziak, guztira	6.834.135,59	4.674.516,30	2.551.610,76
Nafarroako Gobernuak, guztira	53.940.291,88	49.163.507,30	48.760.208,75
Indizea	100	91	93

Nafarroako Gobernuaren ekarpena ehuneko 7 murriztu, batik bat, inbertsioetarako ekarpena –ehuneko 63 gutxiago–.

Aurreko ekarpenak lotuz gero Nafarroako Barne Produktu Gordinarekin –finantza-ahalegin publikoa– eta matrikulatutako ikasle-kopuruarekin –ikasle bakoitzeko ahalegina–, balio hauek izango genituzke:

Adierazlea	2003	2004	2005
Finantza-ahalegin publikoa (%)	0,42	0,36	0,34
Matrikulatutako ikasle bakoitzeko finantza-ahalegina (eurotan)	7.016	6.555	6.593

Hau da, bi adierazleek behera egin dute, 2003ko balioekiko.

- 2003. eta 2005. urteen artean, diruzaintzako gerakinak ehuneko 32 egin du behera; hau da, 18,87 milioi euro izatetik 12,85 izatera. Atxiki gabeko kopurua gehiago murriztu da, ehuneko 47; 13,59 milioi euro izatetik 7,25 izatera.

- Unibertsitatearen epe luzeko zorrik ez da izan aztertu dugun aldian.

- Laneko kapitala (aktibo zirkulatzaila ken pasibo zirkulatzaila) ehuneko 42 gutxitu da aztertutako epean; izan ere, 2003. urtean 18,87 milioi egiten zuen, eta 2005. urtean, berriz, 12,85 milioi eurokoa da.

Gomendioak

Unibertsitateak 2005eko abenduaren 31n finantza-egoera ona izan arren, zenbait magnitudeen eta adierazleren bilakaeran, ikus daiteke joera beheranzkoa dela, eta, halaber, Nafarroako Gobernuaren transferentziekiko mendekotasun handia duela; hortaz, beharrezkoa da lehenbailehen zenbait neurri hartzea, batetik funtzionamendu-gastuak ez handitzeko eta bestetik, ahal dela, baliabide berekiak handitzeko.

Kontu Orokorrak

Unibertsitateak aurkeztutako kontu orokorretan jasota daude, orokorrean, kontabilitate publikoko plan orokorraren oinarriko eskakizunak; hau da, kontabilitate-egoera eta hari buruzko informazioa.

Memorian, "Unibertsitateari buruzko zifrak" atala nabarmendu behar da; izan ere, langileei,

ikasleei, ikerketari eta adierazleei buruzko informazio garrantzitsua adierazten da bertan.

2005eko memorian, aipatutako kontabilitate-planak eskatzen duen informazio osagarriaren zati bat ere erantsi da. Dena dela, zenbait alderdi ez dira oraindik erantsi; besteak beste, inbertsio-proiektuak, diruzaintza-egoera, finantzazioa atxikita duten gastuak eta ibilgetu ez-finantziarioari buruzko xehetasunak.

Bestalde, balantzeko zenbait kontu-saldo ez datoz bat haien izaera ekonomikoarekin, edo dagoeneko ez dute baliorik garrantzi ekonomikoa duten gaientzako, edo aurreko informatika-aplikazioak dira eta ez dira aldatu. Orokorrean, haien zenbatekoak ez dira esanguratsuak.

Gomendioak

- Urteko memoriaren edukia osatzea kontabilitate publikoaren plan orokorrak aipatzen dituen kontabilitateko informazio osagarriaren arloko eskakizunekin.

- Balantzeko zenbait saldo berrikustea eta/edo erregularizatzea, garrantzi ekonomikoa duten gaiekin bat ez datozenak.

VIII.2. LANGILEAK

2005. urtean, 1. kapituluko betebeharrak aitortuek –langile-gastuek– 36,79 milioi euro egiten zuten; hau da, Unibertsitatearen gastu osoaren ehuneko 55. Aurrekontuko artikuluen arabera, aipatutako zenbatekoa eta haren bilakaera 2003. urtearekiko, taula honetan adierazitako moduan banatzen da:

Artikulua	2003	2004	2005
10. Goi-karguak	68.064,57	284,89	0
12. Funtzionarioak	22.419.508,17	24.231.649,46	25.865.182,82
13. Lan-kontratudunak	2.549.412,25	3.552.375,00	4.565.829,06
14. Bestelako langileak	2.875.161,63	2.210.056,49	1.744.426,53
15. Errendimenduko pizgarriak	30.601,51	23.695,19	6.781,66
16. Gizarte-kuotak eta -gastuak	3.884.011,68	4.122.898,63	4.606.172,83
Guztira	31.826.759,81	34.140.959,66	36.788.392,90

Hau da, langile-gastuek ehuneko 16 egin dute gora 2003. eta 2005. urteen artean.

Zenbateko horren bi heren inguru irakasleei eta ikertzaileei ordaintzeko da; gainerako herena, administrazioko eta zerbitzuetako langileei ordaintzeko da.

Administrazioko eta Zerbitzuetako langileak (AZL)

Lantaldearen egitura kontuan hartuta, administrazioko eta zerbitzuetarako 477 lanpostu aurreikusten ziren 2005. urterako. Kopuru horretatik, 381 lanpostu daude beteta, eta, horiek, honela daude banatuta:

Lotura-mota	Kopurua
Karrerako funtzionarioak	286
Bitarteko funtzionarioak	89
Behin-behineko langileak	5
Lan-kontratua dutenak	1
Guztira	381

Hau da, administrazioko eta zerbitzuetako langileen ia ehuneko 76 karrerako funtzionario dira. Lantalde hori pixkanaka-pixkanaka sendotzen ari dela hauteman daiteke.

Hutsik zeuden lanpostu guztietatik –96–, ekitaldia ixtean 72 daude benetan hutsik; izan ere, nahiz eta lanpostua badagokien, 21 zerbitzu-eginkizunetan ari dira, eta beste 3 zerbitzu berezietan.

Beteta dauden lanpostuetatik –381–, ia ehuneko 30 A eta B taldeetakoak dira (2003. urtean ehuneko 29).

Jarraian erantsi dugun taulan, administrazioko eta zerbitzuetako langileak nola banatzen diren adierazten da, zerbitzuka eta 2003. urteko ekitaldiko bilakaera kontuan hartuta:

Zerbitzuak	2003	2005
Gizarte Kontseilua	1	2
Errektoretza	1	1
Kudeatzailtza-zerbitzu orokorrak	273	302
Departamentuak	58	63
Zentroak	12	13
Guztira	345	381
Indizea	100	110

Horrenbestez, aztertu dugun aldian, administrazioko eta zerbitzuetako langile-kopuruak ehuneko 10 egin du gora, eta Kudeatzailtza-Zerbitzu orokorrak izenekoan izan da gorakada batik bat.

2005. urtean, ez zen lan-eskaintza publikoko deialdirik egin. 2004. urtekoan 69 lanpostu iragarri ziren, eta 68 lanposturako deialdia egin zen; horie-

tatik, 42 lanposturen deialdi-prozesua amaituta dago, eta beste 26ak oraindik prozesuan daude.

Irakaskuntza eta Ikerketako langileak (IIL)

2005. urtean, irakaskuntza eta ikerketako langileen zerrenda 844 lanpostuz osatuta zegoen, eta horietatik 805⁽²⁾ daude beteta; jarraian erantsi dugun taulan, langile horiek nola dauden banatuta adierazten da eta 2003ko egoerarekin alderatuta:

IIL	2003	2005
Katedradunak	70	67
Titularrak	292	289
A. Irakaskuntza-kidegoak, guztira	362	356
Elkartuak	289	308
Laguntzaileak	93	83
Besterik	27	58
B. Behin-behineko irakasleak, guztira	409	449
IIL, guztira (A+B)	771	805
Indizea	100	104

2003. urteko ekitaldiko egoerarekin alderatuta, irakasle eta ikertzaile gehiago dago, 34 lanpostu gehiago, hain zuzen: behin-behineko irakasle-kopuruak ehuneko 10 egin du gora, eta irakaskuntza-kidegoen barruan, berriz, ehuneko 2ko murrizketa globala sumatzen da.

2005ean kontratatutako langileek irakaskuntza eta ikerketako langile guztien ehuneko 56 egiten dute –2003an, ehuneko 53–; baina Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren (LOU) arabera, mota horretako langileen kopurua ezin da izan Unibertsitateko irakaskuntza eta ikerketako langile guztien ehuneko 49tik gorakoa.

IIL guztien ehuneko 62k lanaldi osoko dedikazioa dute Unibertsitatean.

Langileen kudeaketa

Lehenik eta behin, komenigarria da gogoraraztea, 2006ko abenduan, Unibertsitateak erabaki zuela AZLri ezartzen zaion araubide juridikoa foru-araudiari egokitzea, Unibertsitatearen beraren Estatutuei jarraiki, eta Comptos Ganbera honek aurreko txostenetan adierazitakoa betez. Egokitzelan horrek, ordainsariak argitzeko beharrari eran-

(2) Unibertsitateak egindako memoriaren arabera, 801 dira.

tzuteaz gain, kolektibo horren kudeaketa hobetzen lagunduko du.

Langileen kudeaketari buruz egindako azterketatik, hauek ere nabarmenduko ditugu:

- Langileen kudeaketarako sistema informatiko integral bat erabat ezartzeko dago; sistema horrek bide emanen luke datu-baseen tratamendu bateratua egin eta kontabilitatearekin lotzeko.

- Unibertsitateko gastuen 1. kapituluaren ez daude jasota mota horretako gastu guztiak, ikerketa-proiektuen ikertzaile nagusiaren lansariak oker egotzi zitzaizkiolako, gure ustez, aurrekontuko 2. kapituluari. Lansari horiek 0,95 milioi euro egin zuten 2005ean.

- Nomina-zerbitzuek ez dituzte ordaintzen irakasleen lansari guztiak, aipatutako ikerketako ordainsariak eta dietak zuzenean ordaintzen dituztelako kontabilitateko zerbitzuek. Dualtasun horren ondorioz, zailagoa da lansari horiek behar bezala kontrolatzea.

- Langile-gastuak murrizteko aurreko fiskalizazioari buruzko betetze-mailako aurreikuspenak ez dira erabat aplikatzen, aldaketetan eta hileko altako kasuetan, batik bat.

- Ez dago organigramarik administrazio eta zerbitzuetako langileak zein unitateri dauden atxikiak eta zer antolaketa dagoen adierazten duenik.

- Ordainsarien laginari buruz egindako azterketatik haxe nabarmenduko dugu:

a) Langileei buruzko txostenetan, ez da beti behar bezala adierazten langilearen familia-egoera eguneratua.

b) Irakaskuntza eta ikerketako langileen kasuan, espedienteetan ez da adierazten Unibertsitateari berari ematen dizkioten banakako merezimenduak.

c) Hizkuntzen Goi Mailako Eskolaren jarduerak fundazioari dagozkionak izan arren, eskolako zuzendariaren nomina Unibertsitateak ordaintzen du, eta lanpostu hori dagoenik ez da adierazten, ez AZLen ez IILen lantaldeetan. 2000. urteaz geroztik betetzen du lanpostua pertsona horrek, eta lanposturako izendatu zenean zehaztu zuten hari zegokion lansaria.

- Irakasle elkartuen kontratazioa. Langin bat aztertu ondoren, honako hauek nabarmendu nahi ditugu:

a) Ez da jasota geratzen hautagaiek aurkezten duten dokumentazioa, ezta lanpostua lortu duenarena ere; izan ere, hautaketa-prozesua amaitzen denean, itzuli egiten zaie. Informazio hori eskura ez izateak mugatu egiten du guk egin beharreko azterketa-lana.

b) Hautaketarako irizpideak ez dira beti behar bezala zehazten, ezta neurtzen ere. Horrezaz gain, balorazio-txostenetan ez da beti behar adinako informazioa jasotzen.

c) Irakasle elkartuak Unibertsitatearen estatu-tuei jarraiki kontratatuko dira; hau da, "gaian aditutzat hartzen diren espezialisten artean." Hala ere, hautaketarako irizpideetan, gaitasuna duela egiaztatzeko, nahikotzat hartzen da lanean aritzea edo lanean aritu izana edo gizarte-segurantzako edozein erregimenetan alta emanda egotea, jarduera edo kotizatzen emandako denbora kontuan hartu gabe.

- Irakaskuntza eta ikerketako langileei dagokienez, ez da kontrolik egiten jakiteko ea ikerketa-proiektuen eta espezializazio-ikastaroen ondoriozko ordainsari osagarriek legeek ezarritako mugak gainditzen dituzten, ez zenbatekoan, ez dedikazioan.

- 2005ean, ez da aipatzen kontrolik edo jarraipenik egin denik, irakasleak eguneroko irakaskuntza-lanetara joan diren jakiteko, ezta tutoretza-orduak bete dituzten jakiteko. Kontrola, administrazioko eta zerbitzuetako langileen kasuan bezala, gaixotasunagatikoko bajei buruzkoa baino ez da.

- Ganbera honek behin baino gehiagotan adierazi duen bezala, ez da egiten irakaskuntza antolatzeke planari buruzko agiri edo txosten orokorrik; eginez gero, aukera legoke ikasturte amaieran ikusteko plan horretan ezarritakoak zenbateraino bete diren, eta desbideratzeak aztertzeke, halakorik izanez gero.

Gomendioak

- *Langileen kudeaketarako sistema integratua behin betiko ezartzea, arlo horrekin zerikusia duten unitateen informazioaren eta datu baseen tratamendua bateragarri egin eta harmonizatuko duena.*

- *Irakasleen eta ikertzaileen lansarien ordainketa zentralizatzea nomina-zerbitzuetan, eta gastuen 1. kapituluaren islatzea osotara egiten duten zenbatekoa.*

- *Organigrama onartzea, bai eta administrazio-unitateei bertan dagokien banaketa ere.*

- *Idazkaritza Teknikoa sustatzea, administrazio-espedienteak koordinatzeko eta ikuskatzeko arduraz izango duen unitate gisa.*

- *Langileen espedienteak administrazio-dokumentazio garrantzitsuarekin osatzea.*

- *Irakasle elkartuen lanpostuetarako hautaketa-irizpideak behar bezala zehaztea, irakasten arituko diren gaietan gaitasun profesional-maila betetzen dutela bermatuko dutenak. Bestalde, kontratu-espeditenteak, gutxienez, aukeratua izan den pertsonaren dokumentazioa jaso behar du.*

- *Kontrolerako sistema bat garatzea eta ezaritzea, Unibertsitateko langile guztien asistentzien berri izateko eta eginkizunak betetzen dituzten jakiteko.*

- *Irakaskuntza antolatzeko planaren kudeaketarako sistema zentralizatua ezartzea, horren bidez, ikasturte bakoitzaren amaieran agerian uzteko noraino bete diren aurreikuspenak eta desbideratzeak aztertzeo, halakorik gertatuz gero.*

VIII.3. IKERKETA-POLITIKA ETA -PROIEKTU-AK

Ikerketa-politika

2005etik 2008ra bitarteko ekitaldietarako Unibertsitatearen 2. Plan Estrategikoaren funtsezko edo oinarrizko bost ardatzetako bat da ikerketa. Eta lau horietarako ezarri den estrategia-ildoak, honela definituta dago: "Bikaintasun egiaztatua bideratutako ikerketa sustatzea, kalitatezko irakaskuntza bultzatuko duena, eta berrikuntza-sistemara eta gizarte osora transferitzea bultzatuko duena; hori guztia, argi eta garbi zehaztutako ikerketa-politikaren esparruan".

Hori lortu ahal izateko, bost helburu estrategiko zehaztu dira, xede operatiboen bidez eta jardueren bidez garatuak –baliabide ekonomikoen eskuragarritasunaren arabera ezartzeko lehenetsi dira–. Hauek dira helburu estrategikoak:

- Unibertsitatearen ikerketa-jarduera areagotzea, eta ikerketa-taldeak politikak garatzeko oinarrizko unitatetzat hartzea.

- Graduondoko ikasketak bultzatzea, kalitatezko ikerketarako funtsezko prestakuntza-elementu gisa.

- Ikerketa-jarduera inguru hurbilean ikusaraztea.

- Ikerketa-jardueraren bistaratzea hobetzea.

- Ikertzaileari zerbitzuak hobetzea.

Proposatutako jarduerak, orokorrean, ez dira oso zehatzak, ez daude programatuta denboran, ez dute haiek ebaluatzeo adierazlerik, ezta betetze-maila zenbatekoa izan den ikusteko sistemarik ere.

Ez da gauzatzen 'argi eta garbi zehaztutako ikerketa-politika,' jardueraren oinarrizko norabidea

zein den jakiten laguntzen duena. Aurreko txostenean adierazi zen bezala, ez dago urteko ikerketa-planik.

Plan estrategikoak, bestalde, ikerketa-taldeak Unibertsitateko ikerketa-unitate nagusitzat hartzen ditu: beharrak adierazten dituztenak, aurrekontuetako subjektuak, ebaluazio-subjektuak eta zerbitzuen jomugakoak.

Unibertsitateko ikerketa-taldeek, urtero, puntuazio bat izaten dute, osaueraren eta jardueraren arabera ematen dietena; baina barne-balorazio hori ez da behar bezain egokia, talde horietako bakoitzari, nazio- eta nazioarte-testuinguruarekiko, lehiakortasun-maila ezartzeko.

Horrenbestez, eta talde horien benetako egoera zein den jakiteko, kanpoko erakunde batek egiten du haien ebaluazioa; hau da, Unibertsitatearekin zerikusirik ez duen agentzia batek. 2005. urtearen amaieran ekin zitzaion prozesuari, eta, horretarako, dirulaguntza-deialdia egin zen ebaluazioa egitea nahi zuten taldeentzat; 2006ko aurrekontuekin gauzatuko da.

Ikerketa-politikaren egungo testuinguruan, gomendatzen dugu Unibertsitateak ikerketa-jarduerarako ildo estrategikoak zehaztea, baliabide gehien eta dedikazio handien biltzeko, eta, horrela, nazio- eta nazioarte-eremuan erreferente izatea lortzeko.

Ikerketa-proiektuak

2005. urtean, 107 ikerketa-kontratu eta 42 ikerketa-proiektu sinatu dira guztira. 2005eko abenduaren 31n, 170 kontratu eta 154 proiektu daude abian.

Ekitaldi honetan, proiektu horiei egotzitako gastuek 3,19 milioi euro egiten dute, eta horiengatik eskuratutako dirusarrerek 3,26 milioi euro.

Egindako azterketatik, alderdi eta gabezia hauek nabarmendu nahi ditugu, Ganbera honek aurreko txostenean ere aipatu zituenak:

- Ikerketa-erregelamendua ez da oraindik onartu, ikerketa-proiektuen tramitazioa, kudeaketa eta kontrola kudeatuko dituena.

- Orokorrean hartuta, hurrengo laukian, proiektu horiei egotzitako gastuen laburpena:

Kontzeptua	Portzentajea
Ikertzaileen ordainsariak	30
Laguntzaileen ordainsariak	14
Bekadunak	11
Material suntsikorra	34
Ekipamendua	11

- Ikerketako langile nagusien ordainsariei buruz, hauxe adierazi behar dugu:

a) Ez da ageri zein izan diren zenbatekoa ezartzeko irizpideak, eta ez da aipatzen inolako parametrorik erreferentziatarako.

b) Kontabilitateko zerbitzuak ordaintzen dira, ez nominakoak. Horrek esan nahi du barne-kontrolerako sistema ahula dela, baita kontabilitateari buruzko informazioa ere.

c) Gastu arrunten 2. kapituluari egozten zaizkio, eta, gure iritziz, hori oker dago.

- Ez da ageri kontrol edo jarraipenik irakasle-ikertzaileek dedikazio eta ordainsarien arloan dituzten mugei buruz.

- Kanpoko laguntzaileei ordaintzen zaienean, ez da beti behar bezalako faktura-motarekin justifikatzen.

- Ez da ageri organo edo unitate administratibo berariazkorik aurrekontuko kontrolaren eta ikerketa-proiektuen kudeaketarako eskumenak dituenik. Gabezia hori kontabilitateko zerbitzuek betetzen dute zenbait alderditan.

- Unibertsitatearen gastu orokorreari egindako ekarpenari dagokionez, hauxe aipatu behar dugu:

a) Ez dago inolako araudi zehatzik arlo horretarako. 2005. urtean, bide horretatik Unibertsitateari egotzitako dirusarrerek –atxikipenen bidez– 0,23 milioi euro egin zuten, eta departamentuei egotzitakoek 0,21 milioi; zenbateko horiek, batez beste, eskuraturako dirusarrera guztien ehuneko 12 inguru da.

b) Berez, kontabilitateko zerbitzuek dirusarren ehuneko 10 atxikitzen dute –ehuneko 5 Unibertsitatearentzat, ehuneko 5 departamentuaren-

tzat– ikerketa-emaitzak transferitzeko bulegoak (OTRI) sinatzen dituen kontratuetan; gainerako proiektuei dagokienez, kontratuaren testuak hala zehazten badu egiten da atxikipena, eta bertan adierazten den zenbatekoa ezartzen da.

c) 2007ko aurrekontuko betetze-mailetan ezarritakoaren arabera, OTRIk sinatutako kontratuetan, gastu orokorrak finantzatzeko atxikipen-portzentajea ehuneko 20koa izanen da. Portzentaje hori ez da aplikatuko denboraldi batean.

- Deialdi publikoko proiektuaren entitate sinatzaileak proiektuari emandako funtsak itzultzeko eskatzen badu, hainbat arrazoiengatik (esate baterako, fakturak epez kanpo aurkeztea edo proiektuaren izaerarekin bat ez datozenak), Unibertsitateak bere gain hartzen du –beti ere, proiektuan nahikoa krediturik ez badago–, bere aurrekontuen kargura, funts horien itzulketa. 2006. urte bukaera arte bidalitako informazioaren arabera, gutxienez 19 espediente daude egoera horretan, eta 96.000 euro inguru ordaindu behar izatea eragin dute.

Erregelamendu bat prestatzea gomendatzen dugu, ikerketa-proiektuen tramitazioa, kudeaketa eta kontrola arautuko dituen, honakoak zehaztuz: ikerketa proiektuen tipologia, kudeaketa-prozedurak, finantzatzeko modukoak diren gastuen izaera eta haien ziurtagiriak, laguntzaileak kontratatze prozedurak, irakasle-ikertzaileen dedikazio eta lan-sarien mugak eta kontrolarekin zerikusia duten unitateek bete beharreko zeregina.

VIII.4.ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA

Helarazi zaigun informazioaren arabera, 2005. urtean 12.000 euro baino gehiagoko kontratu hauek esleitu dira:

Kontratuak	Eraikuntza-lanak		Hornidura		Laguntza		Guztira	
	Zenbaki	Kopurua	Zenbaki	Kopurua	Zenbaki	Kopurua	Zenbaki	Kopurua
Lehiaketa	5	1.093.531	5	557.968	-	-	10	1.651.499
Enkantea	-	-	1	81.674	-	-	1	81.674
Negoziatua, publikitatearekin	1	69.586	8	344.806	-	-	9	414.392
Negoziatua, publikitateari gabekoa	15	450.948	45	1.267.444	8	193.494	68	1.911.886
Guztira	21	1.614.065	59	2.251.892	8	193.494	88	4.059.450
Luzapenak			7	106.331	25	4.909.909	32	5.016.240

Kontratuen lagin baten azterketatik, honako hau nabarmenduko dugu:

Elektronika eta Komunikazioetako Ikerketa eta Garapen Zentroari buruzko ondorioak

I+G zentro horren esleipen- eta exekuzio-prozesua Ganbera honek osatutako aurreko txostenean aipatzen zen, eta hari heldu diogu. Txosten horretan, batik bat, erakinaren onarpenera mugatzen gara.

2004ko urriaren 10ean egin zen I+G zentroaren obren onarpenera, nahiz eta artean, zenbait akats konpontzeko egon.

Amaierako obra-ziurtagiria eta kitapena 2004ko azarokoak dira. Kitapenaren arabera, obraren guztizko kostuak 2,64 milioi euro egin zuten; hona hemen gastuen xehetasunak:

Gastu-kontzeptua	Kopurua
Obraren proiektua eta zuzendaritza	149.858
Eraikuntza-lanak	2.440.909
Girotzeko instalazioa	24.998
Lan osagarriak	19.345
Kostua, guztira	2.635.110

Aurreko gastuari ekipamenduaren gastua –143.844 euro– gehitu behar zaio (altzariak, ordenagailuak, tresneria teknikoa...)

Obraren eta ekipamenduaren finantzazioa hurrengo laukian laburbiltzen da:

Finantza-iturria	Kopurua	Portzentajea
Europako funtsak-FEDER	594.701	22
Nafarroako Gobernua	868.367	31
Enpresa pribatua (Azcoyen)	263.243	9
Unibertsitatea	1.052.642	38
Guztira	2.778.954	%100

2005. urteko martxoan, konpontzeko zeuden akatsen berri eman zitzaion esleipendunari, eta ez da jasota geratu zerbait egin zuen horiek konpontze aldera.

Esleipendunari ez zaizkio itzuli aurkeztu zituen abalak, nahiz eta 2005eko abenduaren amaieran itzultzea eskatu zuen. Abalak ez itzultzeak badu arrazoirik, konpondu beharreko akats txikiak bere horretan baitaude.

Txosten hau idatzitako egunean –2007ko otsaila–, eraikina ez da erabiltzen; altzariak jarrita daude, eta tresneria teknikoak eta ekipamendu informatikoak, berriz, beren zorroetan bilduta daude eta biltegian oraindik.

Unibertsitate-egoitza

2004ko urrian Gizarte Batzordeak erabakitakori jarraiki, eta ikasle-egoitza eraikitzeke helburuarekin, kudeatzaileari baimena eman zitzaion formula juridiko egokiena aztertzeke eta beharrezkoak diren administrazio-tramiteei ekiteke.

‘Foru Komunitateko finantzaziorik ez zegoenez inbertsioetarako’, formularik egokiena zerbitzu publikoko emakida zela erabaki zen; hau da, hirugarren batek eraikitzea Unibertsitate-egoitza eta hura kudeatzea 50 urtez, gehienez. Horrela, Uni-

bertsitateak ez du inolako gasturik, eta emakidapea amaitzean inbertsioa berreskuratu du.

Emakida-kontratuak bere baitan hartzen ditu:

- Egoitzaren urbanizazio- eta eraikuntza-proiektuaren idazketa.
- Obren exekuzioa.
- Zerbitzuaren kudeaketa

Kontratua sinatu aurretik, Udalaz Gaindiko Plan Sektoriala aldatzeko espediente bat tramitatu zen: ‘Nafarroako Unibertsitate Publikoko Campusa’; Nafarroako Gobernuak 2005eko ekainean aldaketa onartu zuen.

Errektoreak ekainaren 20an emandako 706/2005 Ebazpenaren bidez onartu zen Unibertsitate-egoitzak eskaini beharreko zerbitzu publikoaren kudeaketa kontratatzea, baita obra eta ustiapenaren emakida batera esleitzea ere; horretarako, lehiaketa publiko irekia egitea ere erabaki zen. Baldintza administratiboan eta teknikoan agiriak ere onartu ziren. Gastuak onartu beharrik ez zegoen, eragiketa horrek ez baitzion Unibertsitateari gasturik eraginen. Egoitzak eraginen dituen gutxi gorabeherako kostuen taula erantsi dugu jarraian:

Zenbatentzako lekua	300
Obraren gutxi gorabeherako inbertsioa, guztira	8.541.500
Altzarien gutxi gorabeherako inbertsioa, guztira	600.000
Gutxi gorabeherako inbertsioa, guztira	9.141.500
Alokairuaren gutxi gorabeherako diru-sarrera	1.164.000
Urteko gutxi gorabeherako gastuak	1.098.900

Lizitazio-prozesura proposamen bakarra aurkeztu zen. Kontratazio-mahaiak hari buruz egindako balorazioaren tramitazioa zuzena izan zela pentsatzen dugu; izan ere, ahalmen tekniko eta ekonomiko nahikoa duela egiaztatu zuen, baldintza-agiriko gutxieneoak betetzen zituelako; azkenik, enpresa hari esleitzea proposatu zuen.

Aurkeztutako proposamenari buruz, hauxe adierazten dugu:

- Apartamentuaren edo gelaren arabera alokairu-prezioak: bakar batentzako gela, komunarekin eta sukaldearekin, 2007. urtean, 420 euro/hileko.

- Aurreikusitako inbertsioa, guztira: 8.762.793 euro.

- Emakida-epea: 45 urte.

- Nafarroako Unibertsitate Publikoaren aldeko kanona: banatu daitekeen dibidendu maximoaren gehiegizkoaren ehuneko 10, ekonomia- eta finantza-planean aurreikusitakoaren gainean.

- Halaber, Unibertsitateak bakarkako bi gela izanen ditu doan, eta urtero 10.000 euro, egoitzan kultura-jarduerak antolatzeko.

Errektoreak urriaren 17an emandako 1153/2005 Ebazpenaren bidez, Unibertsitate-egoitzaren zerbitzu publikoaren kudeaketa-kontratazioa esleitu zen, eta 2005eko azaroan sinatu zen kontratua. Esleipena egiteko exekuzio-faseetarako ezarritako epeak bete beharko dira.

Hasiera batean, 2006/2007 ikasturtean hasiko zirela egoitza ustiatzen zehazten zen baldintza-agirietan, baina kontratua sinatzean data aldatu egin zuten, eta adierazi zuten obren eta instalazioen amaierako onarpen-akta sinatu eta hilabetera jarriko zutela abian egoitza. 2006ko ekainean hasi ziren obrak, eta 14 hilabete inguru iraunen zutela kalkulatu zen.

Komenigarria da aipatzea kontratuak adierazten duena: "Unibertsitateak ez du inola ere obren finantzazioan parte hartuko, eta emakidan hartu duenari ez dio ziurtatzen zerbitzua ustiatzeak gutxieneo etekina edo errendimendua ekarriko dionik".

Obrak uneoro ikuskatu eta kontrolatuko dituzte Unibertsitate Publikoak horretarako izendatuko dituen langileek. Egoitzaren zerbitzu publikoaren kudeaketa abian jartzen denean, hura ere Unibertsitatearen kontrolpean egonen da.

Aztertutako beste espediente batzuk

Egindako gainerako azterketa-lanetik, hauxe nabarmendu nahi dugu:

- Unibertsitatearen defentsa juridikoak eragindako gastuak –0,10 milioi euro– ez dira tramitatzeko orokorrean eta zenbatekoarengatik, dagokion kontratu- eta esleipen-espedientearen bidez, eta dagoen agiri bakarra, horren faktura da.

- Aldizkari-erosketa. Kontratu hori 2005. urtera luzatzea, gure ustez, zalantzarik da; izan ere, kontratuaren arabera, Unibertsitatearekiko zerbitzuen gehieneko iraupena –3 urte, baldintza-agiriaren arabera– ez da bete, ez baita kontratua sinatu zeneko urtea kontuan hartu. 2006. urtean ez da kontratu-mota hori sinatu, eta aldizkariaren harpidetzari dagokion diru-kopuru handiena –milioi bat euro inguru– bidegabeko aberastearen printzipioari jarraiki ordaindu da. 2007. urtean, esparru-akordioa jarri da abian, erosketa-mota horretarako egokiena.

- Irakaskuntza- eta ikerketa-ekipamendua ez da beti behar bezala planifikatuta erosten, horien premia ere ez da behar adina justifikatzen edo zertarako diren ere ez; halaber, erabileraren errentagarritasuna ez da behar bezala aztertzen.

- Lorezaintzako kontratuari dagokionez, kontratu-aldaketari ezarri dakioken prezioaren zenbatekoa ez dago behar bezala justifikatuta.

- Azterketa eta lan teknikoen barruan, 3.000 euroko txosten bat ageri da, Unibertsitateko bertako bi irakaslek esleitu eta osatua.

Gomendioak

- *Administrazio-kontratuen arloan indarrean dagoen araudia betetzea, lehen aipatu ditugun ataletan.*

- *I+G zentroa abian jarri behar da, jarduerak behar bezala planifikatuta, eta, epe luzera, haren errentagarritasuna bermatzen dela, bai ikerketa-irakaskuntzaren aldetik, bai ekonomikotik.*

- *Zerbitzu publikoen emakidari buruzko informazio garrantzitsuena eranstea memorian.*

- *Ikerketa-ekipamenduaren erosketa behar bezala justifikatu behar da, memoria bat idatzita eta bertan alderdi hauek garbi azalduta: premiak zein diren, erostearen abantailak beste formula batzuen aldean, eta ekipamenduen erabilerak eraginen dituen etekinak eta kostuak, bai ikerketetarako, bai irakaskuntzarako, hala dagokionean.*

- *Idazkaritza Teknikoa sustatzea, espedienteak koordinatzeko eta haiek behar bezala ikuskatzeko tresna gisa.*

VIII.5. DIRUSARRERAK ETA ZORDUNAK

Tasengatik eta prezio publikoengatik

Aurrekontuetako 30. eta 31. artikulua, “tasak” eta “prezio publikoak”, hurrenez hurren, honela gauzatu ziren 2005. urtean, eta 2003. urtearekiko aldea ere islatzen dugu:

	2003	2004	2005
Oposizio-tasak	11.761	33.677	27.044
Matrikula-eskubideak	6.426.934	6.974.412	8.613.455
Administrazio-zerbitzuak direla eta	344.777	356.625	543.412
Kirol-jarduerak direla eta	93.214	95.100	106.424
Lokal eta instalazioen erabilera	418.203	442.761	439.214
Beste prezio publiko batzuk	38.276	36.038	61.357
Guztira	7.333.165	7.938.613	9.790.906
Indizea	100	108	134

Dirusarrera horiek ehuneko 34 egin dute gora, matrikula-eskubideei dagozkienak, batik bat. 2003. urtean, dirusarrera guztien ehuneko 10 egin zuten, eta 2005. urtean, berriz, ehuneko 15 egin zuten.

Dirusarrera eta zordun horien kudeaketari buruz, hauxe aipatu nahi dugu:

A. Matrikulak

- Matrikulak erregistratzeko eta horien jarraipena egiteko prozedura ez dago idatziz adierazita, eta, ondorioz, kontabilitate-zerbitzuen eta kudeaketa-organoaren artean bat ez etortzeak izaten dira. Bat ez etortze horiek, halaber, matrikulei eragiten dieten informatika-aplikazioen arteko koordinazio ezak ere izaten dira.

- Kontabilitate-irizpidetzat kutxakoa aplikatzen da, zenbateko globala hartzen da kontuan, eta, ekitaldiaren abenduaren 31n, ez dago zordunen bana-banako zerrendarik.

- Ez da beti egiaztatzen ikasleak eskatu duen matrikula-salbustea egokia izan den ala ez.

- Diruzaintzakoentzat oso zaila da berankorren jarraipena egitea, bankuko abonu-agirian ez baita zordunaren identifikazioa beti behar bezala adierazten.

B. Kirol-instalazioak eta kirol-klubak erabiltzeak eragiten dituen prezio publikoak.

Kontzeptu hori dela eta, 2002tik 2005era bitarteko ekitaldietan, aurrekontuetan zenbateko hauek adierazi dira:

	2002	2003	2004	2005
Kitatutakoa	223.076	184.640	222.096	234.092
Kobratutakoa	29.816	32.600	63.805	33.443
Kobratutakoa (%)	13	18	29	14
Kobratzeko dagoena	193.260	152.040	158.291	200.649

Nabarmena da, prezio publiko horri buruzko kobratutakoaren portzentajea askoz ere txikiagoa dela, Unibertsitatearen dirusarrera guztien batez besteko betetze-mailaren aldean.

2005. urteko abenduaren 31n, kontzeptu hori dela-eta sortutako zorra 793.849 euro ingurukoa zen; 2006ko abenduaren 31n, zorrak 1.015.437 euro egiten zuen. Kopuru horren guztiaren ehuneko 96 hiru kirol-klubek eragindakoa da, instalazio horiek erabiltzen baitituzte.

Egindako lanetik, ondokoak azpimarratu behar ditugu:

- 2005eko abenduaren 31n, 2000ko ekitaldiko saldoa zuzendu zen (9.100 euro); izan ere, kobratutako kopuruari zegokiona zen, baina oraindik kobratzeko kontzeptu gisa adierazten zen.

- Klub eta federazio berankorrek oraindik instalazioak erabiltzen jarraitzen dute.

- Argi eta garbi dago Unibertsitateak kobratzeko dauden zenbatekoak kobratzeko borondatea duela, baina kirol-zerbitzuen eta ekonomia-zerbitzuen arteko nolabaiteko koordinazio gabezia nabarmena da; izan ere, biek egiten dituzte kobratzeko kudeaketak, eta ez diote beti elkarri jakinarazten egindako lana.

Gomendioak:

- *Prozedura bat diseinatzea, matrikula-eskubi-deak eta kobrantzen jarraipena behar bezala kudeatzeko eta egiaztatzeko.*

- *Dirusarrera horien kudeaketa eta horiei buruzko kontabilitatea egiteko dauden informatika-aplikazioak koordinatzea.*

- *Kirol-instalazioak erabiltzeagatik kobratu beharreko zenbatekoak kobratzeko kudeaketa egokiak egitea, kontuan hartu behar baita prezio publikoak direla. Aspaldiko zor horiei buruz adierazi nahi dugu, halaber, gure ustez ez dela egokia zordun horiekin dagoen hitzarmen-mota erabiltzea.*

Itxitako ekitaldietako zordunak

2001. urtera arteko zorrak osorik hartuta erregularizatu dira kontabilitatearen alorrean -313.000 euro inguru-, baina horietako zor batzuk kobratzeko kudeaketa-lanak abian egon zitezkeen, eragiten dieten zerbitzuen aldetik.

Bestalde, 2005eko urtarrilaren 1ean zeuden zordunen zerrenda hartuta, 2006ko urrian bere horretan, aldagaitz jarraitzen duten saldoak aztertu dira:

- 74 zordunen saldoek bere horretan jarraitzen dute, 2004ko ekitaldia itxiz geroztik.

- Zor aldagaitzak 0,17 milioi euro egiten du, eta kopuru horren ehuneko 77 dira 2004ko ekitaldikoak baino lehenagokoak.

- 10 zordunek dute zor aldagaitz guztiaren ehuneko 85.

Itxita dauden ekitaldietako saldo horiek berrikus-teko prozesua amaitzea gomendatzen dugu, horretarako irizpide zehatzak jartzea -denborari zein prozedurari buruzkoak-, eta zorrak eragiten dien gainerako zerbitzuen inplikazioa kontuan hartzea.

VIII.6. IBILGETUA-INBENTARIOA

Azken ekitaldietan, lan handia egin da ondare-masa horri dagozkion saldoak aztertzen eta erregularizatzen, baita inbentarioko datuekin berdinkatzen ere.

Egindako lan horretatik ondoriozta dezakegu, saldo horiek, orokorrean, Unibertsitateak jabetzan dituen ondasunen eta eskubideen multzoaren adierazgarri direla.

Nafarroako Gobernuaren ondasun jakin batzuen emakida-akordioa erregistratzeari ekin zaio 2007. urtean.

2007ko maiatzean, halaber, errektoreak emandako ebazpen baten bitartez, Unibertsitatea-Gizar-

tea fundazioak urteetan erabili dituen ondasunen doako lagapena onartu zen.

Dena dela, gure ustez:

- *Ondasun higigarrien inbentarioari dagokionez, abian jarritako "in situ" azterketa-politikarekin jarraitu behar da.*

- *Aseguru-polizetan, aldian-aldian aztertu behar da egokiak diren aseguratutako kapitalak.*

VIII.7. DIRUZAINZTA ETA ALDI BATERAKO FINANTZA-INBERTSIOAK

Kontu horiei dagozkien saldoek, 2005eko abenduaren 31n, 14,99 milioi euro egiten zuten gutxira; hau da, 9,62 milioi euro diruzaintzan, eta 5,37 milioi euro aldi baterako finantza-inbertsioetan.

Egindako azterketa-lanetik, hauxe nabarmendu nahi dugu:

- Diruzaintzako funtzioak ez dira behar adina banatzen, banku-berdinkatzeak eta kontaketa-aktak diruzaintzako arduradunak bakarrik sinatzen baititu.

- Ez da beti jasota geratzen finantza-entitateekin itundutako interes-tasari buruzko informazioa, eta ez da haien jarraipenik egiten; era berean, ez dago entitate horiek igorritako likidazioen egiaztapenik.

- Ez dira artxibategian jasotzen diruzaintzako funtsak aldi baterako kokatzen direnean, haiek babesteko kontratu edo antzeko agiri guztiak, ezta finantza-entitateekin izandako negoziazioei buruzkoak ere.

- 2005eko abenduaren 31n kirol-zerbitzuaren kutxa finkoko aurrerakina kitatuta bazegoen ere, diruzaintzara bidalitako gastuen justifikazioa aztertu ondoren, ohartu gara dokumentu horiek ez dituztela beti betetzen zerga-betekizunak.

Gomendioak:

- *Banku-berdinkatzeak eta kontaketa-aktak behar bezala ikuskatu edo adostu behar ditu organo-arduradun gorenak.*

- *Itundutako interes-tasei buruzko eta finantza-entitateek egindako kitapenei buruzko jarraipena egitea, kontu korronteetakoak zein aldi baterako finantza-inbertsioetakoak; eta, halaber, indarrean dauden merkatu-tasekiko egokiak diren aztertzea.*

- *Administrazio-espeditenteak egitea eta/edo osatzea funtsak aldi baterako kokatzeari babesa ematen dioten dokumentazioarekin eta txostenekin, finantza-entitateekin izandako negoziazioak barne.*

VIII.8. BARNEKO AUDITORIAKO UNITATEA/BARNEKO KONTU-HARTZAILTZAK

Unitate horren egoerari buruz, 2001etik 2003ra arteko ekitaldiei dagokienez, Ganbera honek egindako txostenean hauxe adierazten zen bereziki:

“Aurreko unitatearen arautzeak aldaketa nabarmena izan du Unibertsitatearen estatutu aldatuak 2003ko maiatzean onetsiz geroztik. Horrenbestez:

a) Aurreko estatutuak. Bertan ezarririk zegoen Nafarroako Unibertsitate Publikoak “gastuen, inbertsioen eta dirusarreraren barne-kontrola bermatuko zuela legezketasun-, eragingarritasun- eta efizientzia-kontrolen bidez, eta horretarako Barne Kontu-hartzailtzak eratuko zuela unitate administratibo gisa”, eta horren arduraduna izendatzea Gizarte Kontseiluari zegokiola, Gobernu Batzordeari entzun ondoren. Unitate hori, organikoki, Unibertsitateko errektoreari atxikia zen.

b) Indarrean dauden estatutuak. Bertan adierazten da Nafarroako Unibertsitate Publikoak “Nafarroako Unibertsitate Publikoak bere ekonomia- eta finantza-kudeaketaren barneko kontu-ikuskarritza bermatuko duela, Kudeatzailtzak horretarako prozedura egokiak jarriko baititu, bai eta beharrezko ebaluazio eta kontrolak ere”. Eginkizun horiek betetzeko eta Kudeatzailtzaren organigramaren barruan, beharrezkoak diren giza baliabide teknikoak izanen dira.

Beraz, estatutuak aldatzearen ondorioz, Barne Kontu-hartzailtzako Unitatea desagertu egin zen, eta bertako langileak zuzenean Kudeatzailtzaren mende geratu ziren; huraxe da, estatutuen testu berriaren arabera, barne-auditoriaren eginkizunaren arduradun gorena. Kudeatzailtzari eginkizunak emateak, Gizarte Kontseiluaren kaltetan, gure ustez, bateraezinak diren eginkizunak modu desegokian kontzentratzea dakar, eta Unibertsitatearen barne-kontrolerako sistemaren ahulezia adierazgarria erakusten du.

Nolanahi ere, errektoretza- eta kudeatzailtzataldeak aldatuta ere, ez da aldatu Barne Kontu-hartzailtzako Erregelamendua –Gizarte Kontseiluak 1999ko abenduan onetsia– estatutu berrietara egokitzeko, eta, praktikan, aurreko arautzeari jarraikiz eta lehengo arduradunarekin segitzen du lanean eta jardunean. Gainera, aurreko arautze edo erregelamendu hori erreferentziatzen hartzen da ezartzerakoan, esate baterako, 2004ko eta 2005eko aurrekontuetan aplikatu beharreko fiskalizazio-araubide berezia, edo Gizarte Kontseiluaren ekonomiaren arloan izaten dituen aldizkako jarduketak, 2004an onetsiak, antolatzerakoan. Bestalde, Unibertsitateko 2004ko eta 2005eko ekitaldietako lanpostuen zerrendan, Barne Kontu-har-

tzailtzako Unitatearen atxikipen organikoak errektoretzaren mendekoa izaten segitzen du.

Etorkizunean, Gizarte Kontseiluari buruzko Foru Legea LOUra egokitzen denean, berriz azter liteke Kontu-hartzailtzak egun duen estatutu-atxikipena, kontseilu horrek berreskura ditzan barne-kontrolerako eginkizunak.”

2004ko eta 2005eko ekitaldietako egoera ere aurreko paragrafoetan deskribatutako berbera izan da.

Hala ere, 2007ko ekitaldirako lanpostu-zerrendan (LPZ) –Gobernu Kontseiluak eta Gizarte Kontseiluko osoko bilkurak onartua, 2006ko abenduan–, honako aldaketa hauek erantsi dira:

- “Auditoretzaz, antolaketaz eta kalitateaz” arduratuko den lanpostua sortu da, zuzenean kudeatzailtzaren mende egonen dena; administrazioko eta zerbitzuetako funtzionarioen arteko barne-igoera bidez beteko da lanpostua.

- Lanpostu hori bete ondoren, egungo kontu-hartzailtzaren lanpostua kendu egingen da.

Horrenbestez, indarrean dauden estatutuetan aurreikusitakoa betetzen da, baina orain arte Unibertsitatean aplikatu den barne-kontrolaren eredia nabarmen aldatzen da.

Hori guztia ikusita, ondorio hauek atera ditugu:

1. Erakunde guztiek bezala, eta funts publikoen bidez finantzatzen direnak are gehiago, Unibertsitateak ere barne-kontrolerako eredu bat diseinatu eta aplikatu behar du, haren jardueren legezketasuna eta arauzkotasuna behar bezala bermatuko dituen, edozein dela guzatzten duen funtzioa.

2. Kudeatzailtzari esleitutako barne-kontrolerako eginkizunak, indarrean dauden estatutuen babesa badute ere, bateraezinak diren eginkizunak modu desegokian kontzentratzea dakar, bai eta Unibertsitatearen barne-kontrolerako sistemaren ahulezia adierazgarria ere.

3. Barne-kontrolerako organoaren independentzia gabezia horrek, halaber, Gizarte Kontseiluak bete beharreko ekonomia-kontrolari eraginen dio.

4. Lanpostu berriak bete behar dituen eginkizunak zehaztu behar dira, eta Unibertsitatearen barne-kontrolerako araudia berriz egokitu.

Horregatik guztiagatik, gomendatzen dugu, lehenasuna duelako, lehenbailehen antolatzea berriz Unibertsitatearen kudeaketan aplikatu beharreko barne-kontrolerako eredia, Unibertsitatearen kudeaketaren barne-kontrol nahikoa eta independentea lortze aldera.

VIII.9. ADIERAZLEAK

Jarraian, hauei buruzko adierazleak aipatu nahi ditugu:

- Ikasleak
- Irakasleak
- Irakasgaiak
- Jarduera

Ikasturtea	Arruntak	Karrera amaieran	Guztira
2004/2005	7.052	448	7.500
2005/2006	6.943	453	7.396
Aldaketa (%)	(1,55)	1,12	(1,39)

Titulazioak kontuan hartuta eta matrikula arruntei dagokienez, Telekomunikazio Ingeniaritzan ikasle-kopuruak behera egin du nabarmen –ehuneko 16,73–, baita Soziologian ere –ehuneko 10,99–; matrikula-kopuruak gora egin du, berriz, Informatika Ingeniaritzan –ehuneko 208,33– eta Irudi eta Soinuen Telekomunikazioko Ingeniaritza Teknikoan –ehuneko 39,34–.

Lehendabizikoz matrikulatutako ikasleak.

Ikasturtea	Eskainitako eskola-postuak	Ikasleak	Eskaintzaren %
2004/2005	1.770	1.687	95,31
2005/2006	1.735	1.635	94,24
Aldaketa (%)	(1,98)	(3,08)	

Beraz, eskainitako eskola-postuen kopuruak eta lehendabizikoz matrikulatutako ikasle-kopuruak behera egin dute –ehuneko 2 eta ehuneko 3, hurrenez hurren–.

Titulazioak kontuan hartuta, eskainitako eskola-postuekiko matrikula-portzentaje txikiena Soziologian –ehuneko 42– eta Nekazaritzako Ingeniari-

Ikasturtea	Graduatu-kopurua
2003/2004	1.328
2004/2005	1.250
Aldaketa (%)	(5,87)

Titulazioak kontuan hartuta, diplomatura hauetan egin du nabarmen behera graduatutako ikasle-kopuruak: Magisteritza-Musika –ehuneko 86,49–, Soziologia –ehuneko 46– eta Nekazari-ingeniari-tza –25,96–. Graduaturakoen kopuruak gora egin du nabarmen, finkatuta dauden titulazioetan, honako hauetan: Magisteritza-Lehen Hezkuntza –ehuneko 80–, Magisteritza-Atzerriko Hizkuntza –ehuneko 40– eta Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza –ehuneko 23,42–.

VIII.9.1. Ikasleen adierazleak

Jarraian azaltzen diren iruzkinetan, Unibertsitateko ikasleei buruzko zenbait adierazle aztertzen dira:

Matrikulatutako ikasleak. Matrikulatutako ikasle-kopuruaren bilakaera adierazten da taula honetan:

Horiez gain, hauek ere ikasletzat hartzen dira:

- Doktoretzako edo hirugarren zikloko ikasleak: 2005/2006 ikasturtean 554 ikasle ziren, aurreko ikasturtean baino ehuneko 27,20 gutxiago.
- Titulu berekiko ikasleak: 413 ikasle ziren, aurreko ikasturtean baino ehuneko 8,22 gutxiago.

tza Teknikoan -Nekazaritza-industriak eta Elikagaien Industria Espezialitatean izan dira –ehuneko 54–.

Graduatu den ikasle-kopurua. 2003/2004 ikasturteko eta 2004/2005 ikasturteko datuak alderatu dira, eta hauek dira emaitzak:

Ikasketak utzi dituzten ikasleak. 2005/2006 ikasturtean, 751 ikaslek utzi zituzten ikasketak guztira. Titulazioak kontuan hartuta, ikasle-kopuru handienak utzi dituzte Enpresa-zientziatako diplomatura, Industria-Mekanikako Ingeniaritza Teknikoa eta Telekomunikazioetako Ingeniaritza; gutxien utzitakoak, berriz, Informatikako Ingeniaritza eta Enpresen Zuzendaritza-Ikasketa Juridikoak izan dira.

VIII.9.2. II Len adierazleak

Irakasle-kopurua 2005. urtean, sailez sail banatuta.

Sailak	Guztira	Irakaskuntza-kidegoak	Elkartuak	Laguntzaileak	Besterik
Automatika eta konputazioa	48	14	30	2	2
Osasun-zientziak	36	19	16	0	1
Inguru naturaleko zientziak	24	15	3	2	4
Zuzenbide pribatua	28	16	10	1	1
Zuzenbide publikoa	41	13	19	1	8
Ekonomia	54	19	19	11	5
Estatistika eta ikerketa operatiboa	28	14	9	4	1
Filologia eta hizkuntzaren didaktika	22	11	9	1	1
Fisika	20	16	1	0	3
Geografia eta historia	14	10	3	0	1
Enpresen kudeaketa	73	32	29	8	4
Ingeniaritza elektriko eta elektronikoa	79	30	31	11	7
Mekanika eta Materialen Ingeniaritza	51	16	26	8	1
Matematika eta informatika	64	31	21	10	2
Nekazaritza-ekoizpena	41	18	12	4	7
Landa-proiektu eta -ingeniaritza	54	17	29	7	1
Psikologia eta pedagogia	39	18	15	3	3
Kimika aplikatua	32	22	7	0	3
Soziologia	26	12	8	3	3
Gizarte-lana	27	13	11	3	0
2005, guztira	801	%44	%39	%10	%7
2003, guztira	771	%47	%37	%12	%4

Orokorrean, Unibertsitateak ez du LOUn aurreikusitakoa betetzen; izan ere, kontratatutako irakasle kopurua ezin da izan irakasle guztien ehuneko %49tik gorakoa.

2003ko datuekin alderatuz gero, behin-behineko irakasle-kopuruak gora egin du –ehuneko 53tik 56ra–.

Irakasle doktoreak

Doktoreak	2003	2005
Kopurua	441	470
Irakasle guztiekiko %ekoa	57	59
Irakasle LOB guztiekiko %ekoa	66	69

Doktore-kopuruak ehuneko 7 egin du gora, eta, horri esker, irakasle guztien gaineko ratio-balioak eta LOB irakasle guztien gaineko ratio-balioak hobek dira.

Ikerketak egin dituzten irakasleak (seiurtekoak):

Aitortutako seiurtekoak 2005

Ikerketak egin dituzten irakasleak (seiurtekoak):

Aitortutako seiurtekoak	2005
0	131
1	111
2	73
3	28
4	10
5	2
6	0

Hau da, behin betiko irakasleen ehuneko 37k ez du 2005ean aitortutako ikerketa-seiurtekorik.

AZL/IIL —LOB— ratioa

Ratioa	2003	2005
AZL	345	381
IIL —LOB—	668	682
Ratioa	51,65	55,87

AZL-kopuruak proportzioan gehiago egin du gora IIL-LOB- kopuruaren aldean, eta, ondorioz, ratioaren balioa handiagoa da.

Ikasle-ratioa, IIL—LOB— irakasleekiko

Ratioa	2003	2005
1. eta 2. zikloetako ikasleak, karrera amaierako proiektuak barne	7.688	7.396
IIL -LOB—KOP.	668	682
Ratioa	11,51	10,84
1., 2. eta 3. zikloetako ikasleak, karrera amaierako proiektuak barne	8.409	7.950
Ratioa	12,58	11,66

Beraz, ikasle-kopuruak behera egin duenez eta LOB irakasle-kopuruak gora egin duenez, ratioak txikiagoak dira.

VIII.9.3. Irakasgaien adierazleak

2005/2006 ikasturteari dagokion Irakaskuntza Antolatzeke Planean aztertutako informazioari jarraiki, eta 2007ko urtarrilera eguneratuta, hauxe nabarmendu nahi dugu:

Guztira, 1.152 irakasgai eman dira eta horien izaeraren arabera nola banatu diren ikusteko, taula hau erantsi dugu:

Irakasgaia	Kopurua	%
Hautaketa librea	90	8
Nahitaezkoa	185	16
Hautazkoa	394	34
Enborrekoa	483	42
Guztira	1.152	%100

Irakasgai horietatik, irakasgaien ehuneko 80 –irakasgai guztien ehuneko 7– 10 ikasle baino gutxiago ari dira ikasten; haien izaeraren arabera, hauek dira irakasgaiak:

Irakasgaia	Kopurua	%
Hautaketa librea	12	15
Nahitaezkoa	6	8
Hautazkoa	62	77
Guztira	80	100

Hurrengo taulan, ikasle-kopuruen arabera adierazten dira irakasgaiak:

Ikasle-kopurua	Irakasgai-kopurua
0	11
1-5	22
6-8	23
9-10	24

Batez besteko ikasle-kopurua teoria-taldeko hartuz gero, ikus daiteke 116 irakasgaitan –ehuneko 10etan– 15 ikasleko edo 15 baino gutxiagoko taldeak direla.

VIII.9.4. Jarduera-adierazleak

2000-2003 txostenean, Unibertsitateak gauzatu duen jarduera ordezkatzeko zenbait adierazle hartu ziren kontuan. Adierazle horiek, Unibertsitatearen beraren memoriatik eskuratuak, hauek ziren:

- Irakasleen ebaluazioa
- Irakaskuntzaren kalitatea, hautemandakoa
- Eskola-errendimendua
- Ikasketak amaitzeko urte-kopurua eta iraupen teorikoa

- Irakaskuntza-gaitasuna, sailez sail
- Irakasleen eskola-asistentzia

Txosten honen asmoa aurreko adierazleen bilakaera aztertzea zen, 2005. urterako Unibertsitatearen memoriako informazioari jarraiki, baina ezin izan dugu asmoa bete, muga hauek direla eta:

- a) 2005. urterako inkesta bidez eskuratu beharreko irakasle-balorazioa ez da egin.
- b) 2005. urteko irakasle-asistentziari buruzko informaziorik ez dago.

Muga horiek kontuan hartuta, lortu ditugun emaitzak hauek dira:

Titulaziorik titulazio, irakaskuntzari buruz hautemandako kalitatea, hau da, titulazioan ikasleek jasotako irakaskuntzari buruzko satisfazio-maila.

Titulazioa	2003	2005
Nekazaritzako ing. teknikoa	3,84	4,59
Industriako ing. teknikoa	5,04	5,10
Enpresa-zientzietako diplo.	5,32	5,86
Erizaintzako diplo.	4,60	5,77
Magisteritzako diplo.	4,96	4,58
Lan-harremanetako diplo.	4,84	5,55
Gizarte-laneko diplo.	4,23	4,56
Nekazaritza I.	4,43	5,19
Industria I.	4,47	4,70
Telekomunikazioetako I.	5,15	4,20
Zuzenbidea	4,63	5,75
Ekonomia	5,17	5,48
EAZL	5,65	5,74
Enpresa zuzendaritza-Ikasketa juridikoak	6,49	4,83
Soziologiako L.	3,82	3,32
Batez bestekoa	4,84	4,85

Ikasketa-errendimendua titulazioan (portzenta-jetan). Matrikulatutako kreditu guztien artetik zenbat gairak diren neurtzen du. Hauexek dira emaitzak, sailez sail:

Saila	2003	2005
Geografia eta historia	50,00	62,50
Zuzenbide pribatua	65,12	54,17
Zuzenbide publikoa	46,55	60,87
Ekonomia	37,68	54,17
Filologia eta hizkuntzaren didaktika	68,29	51,52
Enpresen kudeaketa	63,64	51,30
Psikologia eta pedagogia	64,71	74,29
Soziologia	54,55	69,12
Gizarte-lana	66,67	55,56
Ingurune naturaleko zientziak	58,33	74,51
Estatistika eta ikerketa operatiboa	31,25	54,74
Fisika	58,33	45,83
Matematika eta informatika	39,19	52,90
Kimika aplikatua	61,70	63,29
Osasun-zientziak	56,52	71,43
Automatika eta konputazioa	70,97	75,47
Ingeniaritza elektriko eta elektronikoa	53,09	65,91
Material, energetika eta mekanika ingeniariak	47,06	44,44
Nekazaritza-ekoizpena	53,03	48,54
Landa-proiektu eta -ingeniaritza	53,23	68,97
Batez bestekoa	%54,99	%59,98

Karrera amaitzeko behar izandako urteak, ikasketen iraupen teorikoarekin alderatuta. Lorturiko emaitzak, titulazioz titulazio, hauexek dira:

Titulazioa	Amaitzeko urte-kopurua, 2003	Amaitzeko urte-kopurua, 2005	Urteak teorikoak
Nekazaritzako ing. teknikoa	5,77	5,83	3
Industriako ing. teknikoa	5,92	5,94	3
Enpresa-zientzietako diplo.	4,64	4,93	3
Erizaintzako diplo.	3,55	3,52	3
Haur Hezkuntzako irakasle diplo.	3,51	3,76	3
Lan-harremanetako diplo.	4,83	5,16	3
Gizarte-laneko diplo.	3,66	3,67	3
Nekazaritza I.	6,83	6,62	5
Industria I.	7,78	7,19	5
Telekomunikazioetako I.	7,83	7,75	5
Zuzenbidea	5,76	5,95	4
Ekonomia	5,51	6,25	4
EAZL	4,76	5,23	4
Soziologiako L.	5,53	6,85	4
Batez bestekoa	5,27	5,23	

Irakaskuntza-gaitasuna (ordutan). Honakoak aztertzen dira: irakaskuntza-gaitasun teorikoa, horren murrizketak espresuki aitorturiko arrazoiengatik (kargu akademikoak, tesiak...), gaitasun teoriko murriztua eta irakaskuntza-lan erreala.

	2003	2005	Aldaketa (%)
Irakaskuntza-gaitasun teorikoa	5.329	5.435	2
Murrizketak	633	588	(7)
Irakaskuntza-gaitasun murriztua	4.696	4.847	3
Irakaskuntza-lan erreala	4.043	4.272	6

VIII.10. UNIBERTSITATEA-GIZARTEA FUNDAZIOA

2005. urteko fundazioaren urteko kontuak Unibertsitatearen kontu orokorraren atalaren barruan erantsita daude. Dena dela, Gizarte Kontseiluak

kontu orokorra onartzeko akordioan, ez da urteko kontu hori onartzeko berariazko aipamenik egiten.

Fundazioko langile-kopurua 2005eko abenduaren 31n eta 2003. urtean, hurrengo taulan adierazten da.

Arloak	2003	2005
Administrazioa eta zerbitzu orokorrak	5	4
Erakunde-harremanak	1	1
Enplegua	10	9
Prestakuntza	6	5
Hizkuntzen Goi Mailako Eskola	33	28
Kultura	-	2
Guztira	55	49

Ikus daitekeen bezala, langile-kopuruak ehuneko 11 egin du behera, nahiz eta Unibertsitate-eremuko kultura-jarduerak fundazioari atxiki 2005. urtean.

Langileen alten laginari buruz egindako azterketaren ondorioz, egiaztatu dugu fundazioak langileak hautatzean, oinarrizko printzipio hauek aplikatu dituela: berdintasuna, argitarapena, merezimendua eta gaitasuna.

Erosketen laginari buruz egindako azterketatik ondorioztatu dugu, orokorrean, fundazioak ezarritako prozedura betetzen dela; hala ere, arloko arduradunak alde zuzenetik egindako eskaera ez dela beti jasota geratzen ohartu gara.

Unibertsitateak atxikitako ondasunen inbentarioa oraindik egiteko dago, baita ondasun berekien eta atxikien aseguru ere. Dena dela, 2007. urteko maiatzean errektoreak emandako ebazpenez, fundazioari doako lagapena egiteko prozedurari ekin zaio, azken urteetan fundazioak erabili izan dituen ondasunak, hain zuzen.

2005. urtean, bestalde, fundazioak Unibertsitateko zama orokorreari egindako ekarpenei buruzko azterketa egin da, batik bat, gelak erabiltzeagatik egindakoak. 2005. urtean, ekarpenek 0,22 milioi euro egin dute.

Unibertsitatearen eta fundazioaren arteko harremanak arautzen dituen Kontratu-Programaren epemuga 2005. urteko bukaera aldera bete zen, baina gehienez ere urtebetez luzatzeko aukeraz hitz egin zen. 2006ko azaroan, errektoreak emandako ebazpenez, 2006ko ekitaldira luzatu zen.

Ganbera honek aurreko beste txosten batzuetan adierazi bezala, bi erakundeen arteko harremanak errazteko eta arinki arautzeko esparru egokia ez zen eragiten. Izan ere, horien egiturak, helburu eta adierazle jakinak ez zehazteak, jarraipena eta kontrolerako mekanismoen zati bat ez aplikatzeak, eta baldintza formalak bete behar izateak eragozten du.

Egun, Plan Estrategikoa osatzen ari dira, hiru urteko epea izanen duena eta Unibertsitatearen eta fundazioaren arteko harremana bideratzeko tresna izanen dena.

Kontratu-programaren arabera, Unibertsitateak fundazioari emanen dizkion ezohiko aginduak, errektoreak aurretik emandako ebazpen bidez eta haren idatzi batez bideratuko dira, eta, halaber, indarrean egonen den epea eta aplikatu beharreko prezioak ere zehaztu beharko dira. 2005. urtean bost ezohiko agindu eman zirela ikus daiteke:

- **Kultura-jarduerak:** Bide formala erabilita eman bazen ere agindua, fundazioak aurkeztu zuen faktura ordaintzeko ez zen inolako prozedurarik jarri abian. Bestalde, gastu guztia kontusail berean erantsi zen, ez ziren kostuak desberdindu, nahiz jatorrizko ebazpenak bestelakorik adierazi.

- **Esperientziaren ikasgela-Tutera:** Errektoreak ez zuen agindu horretarako ebazpen idatzirik eman. Unibertsitateak faktura ordaindu zuen, baina horretarako eskumena duen organoak ez zuen baimena eman, zenbatekoa zela-eta.

- **EAZL Nazioarteko praktikak:** Enkargua ahoz eman zen, eta ez ziren aginduari zegozkion baldintzak eta prezioa zehaztu. Aginduari zegokion ebazpena gerora eman zen.

- **Udako ikastaroak:** Fundazioak jarduerak abian jarri zituen, aginduari zegokion ebazpenik gabe.

- **Udazkeneko ikastaroak:** Errektoreak ez zuen alde zuretik ebazpenik eman.

Ordainketa-espeditante guztietan, Unibertsitateko Kontu-hartzailearen txostena jasotzen da; horietan, behin eta berriz adierazten da jarraitu beharreko prozedura zein den, aipatutako kontratu-programaren aplikazioari jarraiki eta aurrekontua betetzeko oinarriak kontuan hartuta. Agindu horiek direla-eta, Unibertsitateak 0,24 milioi euro inguru ordaindu ditu.

2006. urteari dagokionez, nahiz eta agindu horiei buruzko edukiak eta prezioak zehazten diren, aginduak urte bereko azaroan eman ziren.

Titulu berekiei dagokienez, horiek onartu aurretik, ikastaroa ekonomikoki bideragarria den aztertzen da; ikastaroa abian jartzeko nahitaezkoa da dirusarreraren zenbatekoa (matrikulak + dirulaguntzak) zuzeneko gastuen zenbatekoa baino handiago izatea (irakasleak, materiala, argitarapenak, aseguruak).

Jarraian erantsi dugun taulan, 2004/2005 eta 2005/2006 ikasturteei dagozkien adierazle nagusiak jakinarazten dira.

	2004/2005	2005/2006
Proposatutako ikastaroak	14	12
Emandako ikastaroak	8	7
Bertan behera geratutako ikastaroak	6	5
Ikasle-kopurua	182	144
Emandako ikastaroek eragindako diru-sarrerak, guztira	630.270	480.445
Emandako ikastaroek eragindako zuzeneko gastuak	437.689	366.110

Dirusarreraren eta gastuen arteko aldea ikusita, zeharkako gastuak ere ordain daitezke. Adierazi behar da, halaber, fundazioak Unibertsitateari kanon bat ordaintzen diola –ehuneko 1 edo 3; kontuan hartzen da Unibertsitateak lehendik titulu hori bera kudeatzen zuen edo ez–, eta, bestalde, ehuneko 7 edo 9 jasotzen du zama orokorrak ordaintzeko. 2005ean Unibertsitateari eman zion kanoak 24.140,76 euro egin zuen.

Bestalde, nabarmena da ikastaro-kopuruak eta ikasle-kopuruak behera egiten dutela, pixkanaka-pixkanaka; 2006/2007 ikastaroan ere hauteman da beheranzko joera: 5 ikastaro eta 83 matrikula.

2005. urtean, Unibertsitateko 85 irakaslek 0,13 milioi euro jaso dituzte, titulu berekiei dagozkien eskolak emateagatik.

Gomendioak

- *Lehenbailehen onartzea formula edo tresnaren bat, 2007. urteaz geroztik Unibertsitatearen eta fundazioaren arteko harremanak arautzeko.*

- *Gizarte Kontseiluak fundazioaren urteko kontuak berariaz onartzea.*

- *Unibertsitateak prozedura arautua osatzea, fundazioari ezohiko aginduak emateko.*

BIGARREN ZATIA

IX. X IZPIEN DIAFRAKTOMETRO BATEN EROSKETA-ESPEDIENTEAN LEGEA BETETZEARI BURUZKO FISKALIZAZIOA.

IX.1. AURREKARIAK

1996. urteko urtarrilean, I+Gko Plan Nazionalaren Idazkaritza Nagusiak jakinarazi zion Nafarroako Unibertsitate Publikoari 54.091 euroko (9 milioi pezeta) dirulaguntza emanen ziola azpiegitura zientifiko-teknikoa erosteko. Dirulaguntza hori, hain zuzen ere, x izpien diafraktometro bat erosteko zen, aipatutako Unibertsitateko Fisika Sailak egin nahi zuen ikerketa-proiekturako.

1996ko abenduaren 9an, Unibertsitate Publikoako errektoreak emandako ebazpenaren bidez, Fisika Sailerako diafraktometroa erosteko baimena eman zen, gehieneko 108.102 euroko zenbatekoarekin (18 milioi pezeta); baldintza administratiboen eta teknikoan agiria onartu zen, eta kontratazio-prozedurarako lehiaketa egitea erabaki zen.

Lizitazioaren deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 1997ko urtarrilaren 24an, eta 26 egun naturaleko epea ezarri zen eskaintzak aurkezteko. Bertako prentsan ere argitaratu zen deialdia 1997ko urtarrilaren 31n.

Epemuga bete zenean –1997ko otsailaren 19an–, eta Unibertsitateko erregistroko eginbidearen arabera, hiru proposamen aurkeztu ziren.

Errektoreak 1997ko martxoaren 20an emandako ebazpenaren bidez, kontratua esleitu zen, lizitazioaren zenbatekoa zuela. Urte bereko apirilaren 8an, erosketa-kontratua sinatu zen eta hornitzaileak erosketa-prezioaren ehuneko 4ko fidantza jarri zuen –4.327 euro–.

1997ko uztailaren 15ean, esleipendunak egingadako salerosketari zegokion faktura egin zuen.

2004ko urtarrilean, esleipendunari fidantza itzuli zitzaion.

IX.2. KONTRATAZIO-ESPEDIENTEAREN LEGEZKOTASUNARI BURUZKO IRITZIA

Aipatutako espediente berrikusi ondoren, legearen zenbait alderdi ez direla bete adierazi nahi dugu, kontratu horren tramitazioari eta gauzatzeari aplikatu dakizkizkiekeenak. Hauek dira bete ez diren lege-eskakizunak:

- Espedientean ez dago jasota nahitaezko justifikazio-memoria, erosiko den ondasunak zerbitzu publikoaren beharrak betetzen dituen arrazoitzen duena.

- Espedientean ez dago jasota nahitaezko txosten juridikoa, baldintza ekonomikoan eta teknikoan agiria egokia den adierazten duena.

- Espedientean ez dago jasota, ez esleipendunak aurkeztutako eskaintza, ez gainerako lizitazioaileek aurkeztutakoak.

- Balorazio-irizpideei dagokienez, hauxe nabarmendu nahi dugu:

a) Baldintza administratiboan eta teknikoan agirian lau irizpide aipatzen dira (prezioa, entrega-epea, eskaintako baldintza teknikoak hobetzea eta bermea, saldu osteko mantentze-lana eta zerbitzua), horiek garrantzi handien duenetik gutxienera zerrendatuta, baina inolako ponderaziorik egin gabe.

b) Baldintza-agiri horien “preskripzio teknikoak” 1. eranskinean, balorazio-irizpide hauek ere erantzen dira, ordenan jarrita hauek ere: difrakzioari buruzko ikastaroa, eskaintako tresnaren ezaugarri teknikoak eta bermearen epea bete ondorengo mantentze-lana. Horiek ere ponderaziorik gabe.

c) Balorazio-txostenean –jaulkipen-data eta kontratazio-mahaiak bilera egin zueneko eguna berbera da–, ponderatu gabeko zazpi kontzeptu tekniko aplikatu ziren irizpidetzat (zehaztasuna, aldaberatasuna, izaera modularra, software-a, mantentze-lana, temperatura-ganbera eta aurretikako erosketak), eta, horien arabera, hiru eskaintzak osotasunean baloratu ziren eta ordenan jarri ziren; eskaintza horiek zerrendatu ziren ordena arrazoitzen duen justifikazio-agiririk ez dago. Txosten horretan, bestalde, aipatzen da Plan Nazionalak egindako deialdian diruz lagundutako sei diafraktometro horietatik, hiruk aurreko eskaintza onena egin zuen enpresaren alde egin dutela.

d) Eskaintako prezioa ez da balorazio-irizpidetzat erabiltzen, eta kontuan ez hartzearen arrazoia ere ez da ematen; baliteke, kontratazio-mahaiak lehendik jakitea aurkeztu zirenen eskaintza ekonomikoa lizitazioarena zela –108.182 euro–, hurrengo paragrafoan adieraziko dugun bezalaxe.

- Kontratazio-mahaiaren aktetan jasota dagoenez, eskaintza ekonomikoak 1996ko abenduaren 16an ireki ziren, lizitazioaren iragarkia argitaratu aurretik, eta gainerako dokumentazioa ireki aurretik, alegia (agiri administratiboak eta teknikoak), eta, baldintza-agiriari jarraiki, horiek proposamen ekonomikoan aurretik ireki behar ziren. Zenbait susmo eragin ditzake horrek; hau da, enpresa jakin batzuekin harremanak eta negoziazioak izan zituztela, kontratazio-espedienteari ekin baino lehen, eta, ondorioz, haiek bakarrik aurkeztu zituz-

tela eskaintza ekonomikoak lehiaketan. Beraz, negoziazioa gehiago dirudi lehiaketa baino.

- Espedientean ez dago jasota ondasuna jaso zelako nahitaezko akta; agiri hori funtsezkoa da, baldintza-agirian ezarritako baldintzak ondasunak betetzen zituela egiaztatzeko, eta berme-epari hasiera emateko. Akta hori, gainera, funtsezko elementua da egiaztatu ahal izateko diafraktometroaren X erradiazioen aurkako erabateko babes-ganberak erradiazio-babesari buruzko Europako arau teknikoak betetzen dituela; izan ere, baldintza-agiriak berriaz eskatzen zuen baldintza hori. Espedientean jasota dago “inbentarioan erants daitezkeen ondasunen jasotze-akta,” edo inbentario-fitxa; agiri horretan, besteak beste, adierazten dira faktura-data –1997ko uztailaren 15a–, jasotze-data –1997ko abenduaren 12a (sic)– eta berme-epaia –2 urte, kontratuan urte bakarra ezarrita badago ere–; akta horretan ez da adierazten, bestalde, eskuratutako elementua baldintza-orrian zehaztutako preskripzio teknikoari jarraiki izan dela emana eta instalatua.

- Ez dago alde aurreko nahitaezko baimenik edo instalazio erradioaktibo salbuetsia dela adierazten duen agiririk, horretarako eskumena duen organoak eman beharrekoa; izan ere, eskuratutako tresna abian jartzeko baimena behar da, araudiak aipatzen duen bezala, ziurtatzeko erradiazio ionizatzaileek eragiten dituzten arriskuen aurka osasun-babesa dutela langileek eta hiritar guztiek. Ondasuna jasotzeko unean, Industria eta Energia Ministerioak zuen horretarako eskumena, alde aurretik Segurtasun Nuklearrerako Kontseiluaren nahitaezko txostena izanda; 1999ko urriaren 1az geroztik, horretarako eskumena Nafarroako Gobernuak Industria Departamentuarena da, Segurtasun Nuklearrerako Kontseiluak nahitaez eman beharreko txostena edukita. Aldez aurretik eduki beharreko baimen horren orde, hala irizten badu berriaz horretarako eskumena duen organoak, tresnaren homologazioa erabil zitekeen.

Aurreko paragrafoetan aipatu ditugun ez-betetzen maila handia denez, aztertu dugun kontratazio-espedita ez da legezkotasun-printzipioaren arabera tramitatu, ez gauzatu.

IX.3. ABIAN JARRI ZENEOA ETA EGUNGO EGOERA

Unibertsitateak Ganbera honi bidalitako dokumentazioarekin batera, idatzi- eta ebazpen-multzot

luzetako eta konplexuak erantsi zituen; laburbilduz, gertaera hauek jakinarazten ziren horietan:

Tresneria jaso eta instalatu ondoren, 2004ko uztailaren 1a arte egon zen funtzionamenduan.

1997ko uztailaren, Fisika Saileko zuzendaritzak Unibertsitateko kudeatzaileari idatzi bat bidali zion, geletan instalatutako tresneriaren ezaugarri teknikoak eta segurtasun-ezaugarriak buruzko informazioa eskatzeko.

Segurtasun Nuklearrerako Kontseiluak (CSN) diafraktometroaren instalazioa hiru aldiz ikuskatu zuen, egoeraz ohartarazi zuen Unibertsitatea eta, horiek zuzentze aldera bi aukera aurkeztu zituzten: tresneria homologatzea⁽³⁾ edo instalazio erradiaktiboak dagokien baimena eskuratzea. 2001eko irailan ikuskatu zuenean, aipatu dugun CSNak jakinarazi zuen “bada arau-haste arin bat, arrisku txikikoa eta pertsonen eta ingurumenaren kalterik eragin ez diona.”

Ikuskapenetik ikuskapenerako epean izandako zenbait elkarrizketa eta bisitari buruzko informazioa biltzen duen dokumentazio ugari dago; elkarrizketa horietan, tresneriaren ardura zuen Unibertsitateko langileak, hornitzaile-etxeak, CSNak, Nafarroako Gobernuak eta Unibertsitateak berak parte hartu zuten. Horien guztien helburua tresneria horren instalazioari konponbidea ematea zen, eta, hasiera batean, tresnaren homologazioa eskuratzea zen.

2004ko otsailaren, CSNak 1.200 euroko isuna jarri zion Unibertsitateari, eta hilabeteko epea eman zion arazoari irtenbidea emateko. Unibertsitateak birjartzeko errekurtsioa jarri zuen CSNan bertan, eta urte bereko maiatzaren ezetsi egin zuen kontseilu horrek. 2004ko uztailaren 30ean ordaindu zuen isuna.

Egoera horri behin betiko konponbidea emateko, jarduera hauek gauzatu dira:

a. 2004ko maiatzaren 27an, Nafarroako Gobernuak Industria Segurtasunerako Zerbitzuko zuzendariak tresneria zigoratzeko eskatu zion Unibertsitateari, eta hala gertatu zen 2004ko uztailaren 1ean. Horrelaxe jarraitzen du tresneriak, txosten hau idazten ari garen egunera arte.

b. Egun, eta tresneria horren homologazioa lortzea ezinezkoa denez⁽⁴⁾, konponbidea instalazio erradioaktibotzat hartzea bideratuta dago, Unibertsitatearekiko independente edo Unibertsitatean dagoenari atxikita. Konponbide horrek, bestalde,

(3) Tresneria Alemanian homologatua zegoen —jatorrizko herrialdean—, baina Espainian ez.

(4) Besteak beste, eskuratu zen tresna egiteari utzi diotelako eta tresna egin zuen lantegia itxita dagoelako.

gastuak eragiteaz gain, aurretiko egiaztagirik ez dutenek tresna ezin erabiltzea ekarriko du.

IX.4. AZKEN ONDORIOA

Ondorioz, amaierako laburpen gisa, hona Gambera honek adierazten duena:

1. 1997. urtean tramitatu zen kontratazio-espedienteak gorabehera eta irregularitasun administratiboak ditu, eta horiek agerian utzi dute, batetik, kontratazioari ezartzen zaion araudia ez dela bete, eta, bestetik, kontratazioa ez dela behar adina planifikatu eta behar bezala kudeatu. Horrezaz gain, oso adierazgarria da, tresna erradioaktiboa izanik, nahitaezko neurri administratiboak ez hartzea, eskuratutako ondasunak indarrean dagoen araudiak eta baldintza-agiriekin berek ezarritako segurtasun-betekizunak betetzen zituela bermatzeko.

2. Horren guztiaren ondorioz, baliabide publikoak efizientziarik gabe eta ekonomia kontuan hartu gabe kudeatu dira erosketa egitean; izan ere, tresnak 108.182 euroko kostua izan zuen (18 milioi

pezeta), eta ehuneko 50 dirulaguntza publikoa erabilita finantzatu zen. Bestalde, 2004. urtera arte nahitaezko baimenik gabe erabili zen tresna, eta, harrezkero, zigilatuta dago.

3. Segurtasun Nuklearrerako Kontseiluak emandako iritzi arrazoituaren arabera, tresna erabili zuten pertsonen ez zien arriskurik eragin.

Bukatzeko, tresnaren instalazioari lehenbailehen eman behar dio irtenbidea Unibertsitateak, eta, horretarako, segurtasun-betekizunei ahalik eta ondoen erantzunen dion eta irakaskuntza-, ikerketa- eta ekonomia-alderdiei ahalik eta errentagarritasun handiena aterako dien aukera hartu behar du.

Lan hau egiteko ardura izan duen Ignacio Cabeza del Salvador auditore jaunak hala proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2007ko uztailaren 27an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

San Adriángo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko eta 2005eko ekitaldietakoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 8an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak San Adriángo Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2004ko eta 2005eko ekitaldietakoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2007ko urriaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

San Adriángo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko eta 2005eko ekitaldietakoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (38. or.).
- II. Helburua (39. or.).
- III. Norainokoa eta mugak (39. or.).
- IV. Iritzia (40. or.).
 - IV.1. Aurrekontuaren likidazioari dagokionez (40. or.).
 - IV.2. Ondare-egoeraren agerpena (40. or.).
 - IV.3. Legezketasuna (40. or.).
 - IV.4. Finantza egoera (40. or.).
 - IV.5. Informazio osagarria eta azalpen oharra (40. or.).

IV.6. Comptos Ganberaren gomendioen jarraipena (40. or.).

IV.7. Ondorio orokorra (41. or.).

V. 2004ko eta 2005eko ekitaldietarako iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (41. or.).

V.1. Administrazio-kontratazioa. (41. or.).

V.2. Langileria (43. or.).

V.3. Tributu bidezko dirusarrerak; tasak; prezio publikoak (43. or.).

V.4. Kudeaketari buruzko bestelako gomendioak (43. or.).

Eranskina: 2004ko finantzen egoera-orrien eta 2005eko finantzen egoera-orri bateratuen oroitidazkia.

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta ondoko webgunean:

www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

San Adriángo Udalak 5.956 eta 5.967 biztanle ditu 2004ko eta 2005eko urtarrilaren 1ean, hurrenez hurren, eta hauexek ditu zifra adierazgarriak 2004ko eta 2005eko abenduaren 31n:

2004 (eurotan)

Entitatea	Aitorturiko betebeharrak	Eskubide aitortuak	Langileria
Udala	4.326.642	4.114.633	50
San Adriángo Musika Eskolako Patronatua (1)			
Guztira	4.326.642	4.114.633	50

(1) 2004an ez dago San Adriángo Musika Eskolako Patronatuari buruzko datunik, erakunde autonomo horretan ez zegoelako ezarrita kontabilitaterik.

2005 (eurotan)

Entitatea	Aitorturiko betebeharrak	Eskubide aitortuak	Langileria
Udala	4.537.831	5.129.169	47
San Adriángo Musika Eskolako Patronatua (1)	112.101	115.437	14
Bateratzearen doitzak	(32.000)	(32.000)	
Guztira	4.617.932	5.212.606	61

Udalak parte hartzen du Azagra, Andosilla, Cárcar eta San Adriángo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean, Goi Erriberako Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatean eta Erdialdeko Erriberako Kirol Mankomunitatean. Horien bitartez ematen ditu gizarte zerbitzuak, hiri hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendu zerbitzua eta kirol mankomunatuaren zerbitzuak.

Aldez aurretiko informazio gisa, esan behar dugu Comptos Ganberak ezin izan zuela 2002ko eta 2003ko auditoriarik egin, ekitaldi horietako aurrekontu likidazioa ez zegoelako eskuragarri: udalak, hala ere, ondoren doitze-lana eta kontabilitatearen antolaketa lana egin du, eta horrek ahalbidetu du 2004ko eta 2005eko ekitaldiei buruzko txosten hau egitea. Hala ere, txostenean ikus daitezkeen moduan, kontabilitateak baditu oraindik zenbait gabezia, konpondu gabe daudenak.

II. HELBURUA

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, fiskalizatu egin ditugu bai San Adriángo Udaleko kudeaketa ekonomiko eta finantzarioa, bai eta udal horren 2004ko eta 2005eko ekitaldiko gastuen eta dirusarreraren aurrekontuen betetzea, zeinak, 2005eko ekitaldiari dagokionez, erakunde autonomoenak ere biltzen baititu.

Toki entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute: aipatutako legeek, Toki araubidearen oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutuak, administrazio-kontratazioari eta hirigintza-kudeaketari buruzko araudiak eta Nafarroako toki entitateei oro har aplikatzekoa zaien gainontzeko araudiak.

Kontabilitate eta aurrekontu gaietako araubide juridikoa ezartzen da Nafarroako toki administrazioarentzako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu egiturari eta kontabilitateari buruzko 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 Foru Dekretuetan.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

a) San Adriángo Udalaren eta bere erakunde autonomoen 2004ko eta 2005eko ekitaldietako aurrekontuen garapena eta betetzea.

b) 2004ko eta 2005eko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agertarazpena, aplikatzekoak zaizkion kontabilitate-printzipioei jarraituz.

c) Jarduera ekonomiko eta finantzarioa legezkotasun printzipioari egokitzen ote zaion.

d) Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2004ko eta 2005eko abenduaren 31ko finantza-egoera.

e) San Adriángo Udalaren finantzen egoera-orri bateratuen informazio osagarrian eta azalpen oharretan ageri diren datuen eta iruzkinen arrazoizkotasuna eta koherentzia.

f) Azken fiskalizazio-txostenean, zeina 2002ko ekitaldiari buruzkoa baita, Comptos Ganberak eman zituen gomendioak noraino bete diren.

III. NORAINOKOA ETA MUGAK

Comptos Ganberak, bere jarduketa programa-rekin bat, San Adriángo Udalaren (aurrerantzean, "udala") finantzen egoera-orrien fiskalizazioa egin du; egoera-orri horietan sarturik daude 2004ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria, aurrekontu-emaiza eta diruzaintzako gerakina, eta 2004ko abenduaren 31ko egoeraren balantzea, bai eta finantzen egoera-orri horien informazio osagarria eta azalpen oharra ere.

Agiri horiek guztiak bateratuta aurkeztu dira 2005eko ekitaldirako. Gainera, "San Adriángo Musika Eskola" patronatuko kontuak ere erantsi zaizkie.

Udalak Kontabilitate Publikoari buruzko plan orokorra ezarrita dauka, eta kontabilitatearen egoera-orri bateratuak dauzka, 2005eko ekitaldikoak udalari eta haren erakunde autonomoari dagozkienak.

2004ko ekitaldiari buruzko kontabilitatearen egoera orriek udalaren kontabilitatea jasotzen dute soilik, erakunde autonomoen kontabilitatea ez baitago eskuragarri. Hori dela eta, ezin izan dugu fiskalizaziorik egin aipatu erakundearen 2004ko ekitaldiari buruz.

Eginiko azterketak ardatz nagusi izan ditu aurrekontuaren betetzearen kapitulu ekonomikoen berrikuspenean (aurrekontuko aldatetako eta aurreikuspenen betetze-maila aztertu dira) eta ondare-masa ezberdinen berrikuspenean (antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolako gaiak aztertu dira).

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako fiskalizazio printzipioei eta arauari jarraituz eta aurreko urteetako

lanetan agerian utzi diren baldintzen eta arazoan arabera beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatuz.

Txostenean daude udalaren eta haren menpeko erakunde autonomoaren antolamendu, barnekontrol, eraginkortasun eta efizientzia hobetzeko beharrezkotzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu udaleko eta haren erakunde autonomoko langileei.

IV. IRITZIA

Adierazitako norainokoaren neurrian, honakoak aztertu ditugu: San Adriángo Udalaren finantzen egoera-orriak, 2004ko abenduaren 31n amaituriko ekitaldiari buruzkoak, eta udalaren eta haren erakunde autonomoaren finantzen egoera-orri bateratuak, 2005eko abenduaren 31n amaituriko ekitaldiari buruzkoak, aztertu ditugu. Egoera-orri horiek udalaren ardurapean egin dira.

Eginiko azterketan oinarrituz, hona gure iritzia:

IV.1. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOARI DAGOKIONEZ

IV.1.1. 2004ko ekitaldiko aurrekontua

Honekin batera doan 2004ko aurrekontuaren likidazioari buruzko egoera-orriak egoki agertzen du fiskalizaturiko ekitaldian udalak eginiko eragiketa-multzoa. Hala ere, aurrekontu-egozketa okerrak aurki daitezke, hala ekonomiaren nola denboraren ikuspegitik. Alabaina, ez dute eraginik udalak eginiko jardueraren agerpen orokorrean.

IV.1.2. 2005eko ekitaldiko aurrekontu bateratua

Honekin batera doan 2005eko aurrekontu bateratuaren likidazioari buruzko egoera-orriak egoki agertzen du fiskalizaturiko ekitaldian udalak eta bere erakunde autonomoak eginiko eragiketa-multzoa. Hala ere, aurrekontu-egozketa okerrak aurki daitezke, hala ekonomiaren nola denboraren ikuspegitik. Alabaina, ez dute eraginik udalak eginiko jardueraren agerpen orokorrean.

IV.2. ONDARE-EGOERAREN AGERPENA

IV.2.1. 2004ko ekitaldia

2004ko abenduaren 31ko egoera-balantzeak behar bezala agertzen du udalaren finantza eta ondare egoera, salbu eta ondasunen (ibilgetua) inbentarioaren kasuan, gaurkoturik ez dagoelako –1995ekoa da–.

IV.2.2. 2005eko ekitaldia

Erantsitako 2005eko abenduaren 31ko egoera-balantzeak behar bezala agertzen du udalaren eta haren menpeko erakunde autonomoaren finantza-eta ondare-egoera bateratua, salbu eta ondasunen (ibilgetua) inbentarioaren kasuan; izan ere, 1995ekoa da eta gaurkotu gabe dago.

IV.3. LEGEZKOTASUNA

Udalaren ekonomia- eta finantza-jarduera, oro har, legezketasunaren printzipioaren arabera bete da, salbu eta V. atalean jaso diren ez-betetzeei dagokienez, administrazio kontratazioari eta langileen aukeraketari buruzko zenbait alderdi direla eta. Horri dagokionez, txosten honetan zenbait gomendio adierazi dira, gai horri buruzko arauak hobeki betetzeko.

IV.4. FINANTZA EGOERA

IV.4.1. 2004ko ekitaldia

San Adriángo Udalak 2004ko abenduaren 31n agertzen duen finantza-egoerari buruz aipatzekoa da egonkorra dela: 315.348 euroko diruzaintzagerakina du gastu orokorretarako, ehuneko 9ko aurrezki gordina du, eta epe luzeko zorra, 2.957.644 eurokoa.

IV.4.2. 2005eko ekitaldia

San Adriángo Udalak eta bere menpeko erakunde autonomoak 2005eko abenduaren 31n agertzen duten finantza-egoerari buruz aipatzekoa da egonkorra dela: 700.770 euroko diruzaintzagerakina dute gastu orokorretarako, ehuneko zazpiko aurrezki gordina dute, eta epe luzeko zorra, 2.755.228 eurokoa.

IV.5. INFORMAZIO OSAGARRIA ETA AZALPEN OHARRAK

2004ko ekitaldiko finantzen egoera-orrien eta 2005eko finantzen egoera-orri bateratuen informazio osagarrian eta azalpen oharretan beharrezkoa den informazioa dago egoera-orri haiek interpretatu eta ulertzeko, udaleko oroitidazkiak agertzen duenez, ez balitz hirigintza arloko informazioz ez dutelako agertzen. Gainera, 2004an ez dira aurkeztu udalaren eta bere menpeko erakunde autonomoaren egoera-orri bateratuak, azken honi buruzko kontabilitaterik ez dagoelako.

IV.6. COMPTOS GANBERAREN GOMENDIOEN JARRAIPENA

Oro har, esan daiteke lan hau egiteko unean, eta bi ekitaldiei dagokienez, ez direla aintzat hartu

ganbera honek aurretik eginiko txostenetan adierazitako gomendio administratibo eta kontabilitatezko nagusiak.

IV.7. ONDORIO OROKORRA

Ondorio nagusiak azaldu aurretik, iruditzen zaigu ohartarazi behar dela, udalaren kudeaketa guztian eragina baitauka, egoera berezi bat dagoela udalaren aurrekontuaren eta kontabilitatearen kudeaketan. 2004an eta 2005ean aurreko ekitaldiko aurrekontuak luzatu ziren, eta kontabilitatea atzerapen handiz egin zen. Horren ondorioz, jardura ekonomiko ia guztia gauzatu zen kontabilitatearen eta aurrekontuen arloko inolako kontrolik egin gabe. Hortaz, esan daiteke kontabilitatea mugatu dela eginiko jardura a posteriori aurkeztera.

Laburbilduz, eta **ondorio orokor gisa**, bi ekitaldietarako, hona gure gomendioak:

- *Aurrekontua legez ezarritako epeetan onetsi behar da, udalaren kudeaketa ekonomiko eta finantzariarako tresna gisa erabili ahal izateko. Halaber, kontabilitatea gaurkotuta eduki behar da, eta aldiro aurkeztu behar da aurrekontuaren bete-zearen egoera-orri bat. Horrela, eginiko gastua eta konprometitu ahal dena ezagutuko da eta, beharrezkoa bada, aurrekontu-aldaketak egin ahalko dira, eta aurrekontuan diru nahikorik egon gabe gasturik ez egitea lortu ahalko da. Aurrekontuaren kudeaketaren barne kontrolako mekanismoak indartu eta osatu behar dira, egindako eragiketak ziurtatzeko eta bermatzeko; batez ere, saldoak berdinkatzeko eta berraztertze arloari, kontabilitate printzipioei eta inbentarioak eguneratzeari dagokienez.*

- *Administrazio-kontratazioari buruzko araudia zorrozki betetzea, batez ere espedienteak formalizatzeari buruzko alderdi batzuei dagokienez.*

- *Azterketa orokor bat egitea langileen kudeaketari buruz eta plantilla udalaren beharizanetarako egokia ote den jakiteko.*

- *Udalaren etorkizuneko finantza-egoera aztertu behar du, eta honakoak bezalako puntuak ebaluatu behar ditu: zerbitzuak eta bere kostua, proiektu berriak eta zorpetze-ahalmena.*

- *Oroitidazkiaren edukia osatzea, hirigintza bezalako alderdiei dagokienez.*

- *Erakunde autonomoak, toki entitate publikoak den aldetik, araudi publikoaren arabera jardura eduki behar du, batez ere administrazio kontratazioaren arloan.*

Bestalde, horietako bere eginkizunak argi eta garbi finkatu behar dira, haren benetako autonomia maila zehaztu behar da, eta udalak haren jardueraren gain kontrola, kontu-hartzailetza eta zain-tza lanak gauzatzeko bideak ezarri behar dira.

Alabaina, ez da ahaztu behar erakunde horren eragiketak, entitate publikoa den heinean, kontu-hartzailetza publikoaren menpe daudela; horregatik, eginkizun hori benetan bete ahal izateko, udalaren kontu-hartzailetzak prozedura egokiak taxutu behar ditu.

V. 2004KO ETA 2005EKO EKITALDIETARAKO IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

V.1. ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA.

Atal honetan xehakaturik agertuko ditugu, alde batetik, hornidurak erosi eta zerbitzuak emateari buruzko alderdiak eta, bestalde, inbertsioak.

V.1.1. Hornidurak erosi eta zerbitzuak ematea

Udalak ez dauka kontratazio espedientei buruzko erregistrarik 2004 eta 2005 urteetarako. Udaleko Osoko Bilkurak onetsitako kontratuen zerrenda eskuratu ondoren, ondoko espedienteak berraztertu ditugu:

(eurotan)

Espedientea	Formalizazioa	Esleipen-prozedura	Esleipenaren zenbatekoa
Bideak garbitzea	2004	Negoziatua, publizitadeduna	58.648
Udal eraikinak garbitzea	2005	Lehiaketa publikoa, irekia, publizitadeduna	134.393

Udalak erosketen kudeaketarako prozedura normalizatu aplikatzen du. Oro har, ondorioa da espediente horietan hornidurak eta zerbitzu emateak kontratatzeke prozedura egokia dela. Hala eta guztiz ere, erosketen arloan eginiko lanetik honako hau ondorioztatzen da:

- Badira udalari ematen zaizkion zenbait zerbitzu, zeinetarako ez baita inongo kontratazio prozesurik egin, udaleko teknikari eskudunek horri buruz ohartarazita ere.
- Nabarmendu behar da badirela 31.761 euro egiten duten gastu orokorrak, oker sailkatuta; izan ere, transferentzia arruntei buruzko 4. kapituluaren egon beharko lukete.
- Aurreko urte batzuetan esleituriko kontratu batzuek Kontratuei buruzko Foru Legeko 22. artikulua ezarritako gehieneko iraupena, sei urtekoa, gainditzen dute.
- Ikusi dugunez, sortzapenaren printzipioa ez da betetzen kasu batzuetan. Hauxe gomendatzen dugu:

Espedientea	Prozedura	Esleipena	Urtea
AR-2 eremuaren lurzati-berrantolamendurako proiektua idaztea	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua.	29.300	2004
Udal plan orokorraren idazketa	Lehiaketa	103.500	2005
Sareen berriztapena	Negoziatua, publizitateduna	338.050	2005
Guztira		470.850	

Espediente horiek bi ekitaldietako inbertsio erreale guztien ehuneko 39 egiten dute. Gainera, aurreko ekitaldietan hasitako proiektu batzuen bilakaera ere berrikusi dugu.

Aztertutako espedienteak kontratazioari buruzko araudiari egokitu zaizkio, eta berdintasun, lehia-kortasun eta publizitate printzipio oinarrizkoak errespetatu dira.

Eginiko lanaren ondorioz behinenak adieraziko ditugu hurrena:

- Badira aitortutako betebeharrak, aurrekontuan aurreikusita ez daudenak, baina ez dago ondorengo aurrekontu aldaketarik horiek kontuan hartzen dituenik. Horretaz gain, udalak eginiko zenbait inbertsiotan ez da esleipen-prozedurarik egin, zenbatekoak txikiak badira ere.
- sortzapen-printzipioa ez da betetzen.

Udalari eta erakunde autonomoari aplikaturiko erosketa-prozedura idatziz garatzea, eta aholkularitza juridikoak nahiz udaleko kontu-hartzaileak araudiari jarraituz bete beharreko eginkizuna berariaz zehaztea.

Behar diren kontratazio-prozedurak egitea zerbitzu guztiak esleitzeko, Kontratuei buruzko Foru Legeak ezarritako gehieneko iraupena kasu guztietan aintzat hartuz.

Beharrezkoak diren kontrolak ezartzea, ekitaldi bakoitzak euts diezaien ekitaldian bertan sortutako gastu guztiei.

Kontratuen erregistro bat ezartzea.

V.1.2 Inbertsioak

Kapitulu honen betetze maila baxua da –ehuneko 47,90 eta ehuneko 67,10, hurrenez hurren, 2004ko eta 2005eko ekitaldietarako–. Horren arrazoia udal igerilekuetako lanak dira –bi aurrekontuetan jasota daude, eta 948.000 euro daude horretarako–, ez baitira oraindik hasi.

Kontratazio espediente hauek aztertu ditugu:

- Akatsak antzeman ditugu gastuen sailkapenean; izan ere, 2005eko ekitaldian, inbertsio errealei buruzko 6. kapituluaren sartuta zeuden 98.330 eurok transferentzia arruntei buruzko 4. kapituluaren egon beharko lukete.

Ondotik, laburpen gisa, gomendio aipagarriak azalduko ditugu:

- *Udaleko langileek egiten dituzten obretarako materialak erostera bideratuak dauden baliabideen kudeaketa optimizatzea.*
- *Beharrezkoak diren aurrekontu aldaketak egitea, aitortutako betebeharrak aurrekontuetan aintzat hartzeko.*
- *Administrazio kontratazioari buruzko araudia zorrozki bete behar da, bereziki kontratazio espedienteen formalizazioaren inguruko alderdiei eta kontratuen esleipenean lehia printzipioa aplikatzeari dagokienez.*

V.2. LANGILERIA

2004ko eta 2005eko ekitaldietako plantilla organikoa ekitaldia hasi eta gero onetsi zen.

Administrazio eta kontabilitatearen arloan sei pertsonak egiten dute lan, idazkaria eta kontu-hartzailea barne.

Nabarmendu behar da 2005ean langileak funtzionario bihurtzeko prozesu bat gauzatu dela, kasuan kasuko erregelamenduari jarraikiz, eta horren bidez udaleko hiru langile funtzionario bilakatu dira.

Azterturiko langileen laginean, ikusi ahal izan dugu kasu batzuetan familia egoerari buruzko zinpeko aitorpenik ez dagoela jasota, lan kontraturen bat falta dela, edota jasotzen den lansaria plantilla organikoan zehaztutakoaren gainetik dagoela.

Korporaziokideen ordainsari finko eta aldakorak onetsi zituen erabakia oso zaharra da, eta horien gainean ez da atxikipenik egiten.

Hona langileriaren arloko gomendio orokorrak:

- *Nominak egiteko sistema barnekoa ala kanpoko izatea alde batera utzita, nominak egokiak direla bermatzeko prozeduraren bat taxutu behar da, egiaztapenak egiteko eta barne koherentzia segurtatzeko behar diren tresnak erabiliz.*

- *Kasu guztietan betetzea kontratazioari buruzko araudia langileen hautapen prozeduretan, eta lanpostuak aurreikusita egotea plantilla organikoan.*

- *Langileen administrazio-espeditanteetan dagoen dokumentazioa osatu behar da, beharrezkoa den dokumentazio guztia eduki dezan. Zehazki, langileen famili egoerari buruzko zinpeko aitorpenak urtero eskuratu behar dira.*

- *Aparteko orduak egitea baimendu eta onetsi behar du ordu horiek egiten dituenaz beste pertsona batek.*

- *Udalaren organigrama egin behar da.*

- *Araudiak ezarritako datetan onetsi eta argitaratu behar da plantilla organikoa.*

V.3. TRIBUTU BIDEZKO DIRUSARRERAK; TASAK; PREZIO PUBLIKOAK

Hauxe gomendatzen dugu:

- *Prozedurak taxutu eta sistematikoki aplikatzea dirusarreraren kudeaketako datuak egiaztatzea ahal izateko, eta datu horiek beren kontabilitate-erregistroekin eta diru-bilketekin bat etorraz eta alderatzea, horrela kontabilitate- eta aurre-*

kontu-informazioaren segurtasun eta fidagarritasun handiagoa lortzeko.

- *Tributu-figuren errolden aldaketak formalki onestea.*

- *Tasa eta prezio publikoek jasaten dituzten kostuei buruzko azterlanak aldizka gaurkotzea.*

- *Aurreko ekitaldia amaitu baino lehen onestea zergen ehunekoak.*

V.4. KUDEAKETARI BURUZKO BESTELAKO GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, ganbera honen aburuz udalak jarraitu behar dituen gomendio nagusiak, bere antolaketa, prozedura, kontabilitate eta barne-kontrolako sistemak hobetzeko.

V.4.1. Antolamendu orokorra

Comptos Ganberak hauxe gomendatzen du:

- *Aurrekontuak udaleko kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren gida-dokumentua izan behar du, eta ez legeak ezarritako nahitaezko dokumentu soil bat. Erabakiak hartzeko oinarritzko dokumentua aurrekontua izan dadin, beharrezkoa da kontabilitatea gaurkotua edukitzea eta aldian-aldian aurrekontu-betetzeari buruzko egoera-orri bat aurkeztea. Horrela, eginiko gastua eta konprometitu ahal dena ezagutuko da eta, beharrezkoa bada, aurrekontu-aldaketak egin ahalko dira, eta gaindituriko kontusailik ez egotea lortu ahalko da.*

- *Kontabilitatean eta aurrekontuetan eragiten duten egintza guztiek ondoko baldintzak bete beharko dituzte:*

a) *Behar bezala baimenduta egotea.*

b) *Kontabilitate-dokumentu baten bidez behar bezala bermatuta egon behar dute, exekuzio-oinarrietan ezarritakoari jarraituz.*

c) *Behar den justifikazioa izan beharko dute, eta, fakturei dagokienez, ikus-onetsia izan beharko dute.*

d) *Kontu-hartzaileak ikusita behar dute.*

- *Barne araubideari buruzko erregelamendua bat egitea, horren bidez udaleko organo exekutiboen eskumenak definitu eta euren artean banatzeko eta erakunde autonomoekiko harremanak arautzeko.*

- *Oinarritzko kudeaketa-prozedurak idatziz jarritzea, eta exekuzio-faseetarako arduradunak identifikatu eta esleitzea.*

- *Udalak eta “San Adriángo Musika Eskola” patronatuak bereganatu behar dituzten gastuak eta dirusarrerak argitu eta zehaztea.*

- *Udalak bere erakunde autonomoaren ekin-tzen gainean egin behar dituen kontrol eta zaintza lanak behar bezala bermatuko dituzten prozedurak taxutu behar dira.*

- *Udalak bere baliabideak zer-nolako eragin-kortasun eta ekonomiaz kudeatzen dituen estima-tzea ahalbidetuko duten helburuak, bitartekoak eta adierazleak eskura izateko prozedurei ekin behar-ko litzaieke.*

V.4.2. Inbentarioa-ibilgetua

Hauxe gomendatzen dugu:

- *Udal ondasunen eskriturak egiten eta onda-sunok erregistratzen amaitzea, hala jabari publiko-koak nola ondare-ondasunak eta komunalak.*

- *1995eko udal inbentarioa gaurkotzeko proze-su bati ekitea.*

- *Udal inbentarioaren etengabeko gaurkotzea eta hura kontabilitatearekin konektatua egotea lor-zeko prozedurak taxutu eta aplikatzea.*

- *Ibilgetuko dokumentazioa artxibatzeke eta altak nahiz bajak kontabilizatzeko prozedurak defi-nitu eta ezartzea, kontu horiei aplikatzekoak diren kontabilitate-irizpideei jarraituz.*

- *Ibilgetua osatzen duten kontabilitate-saldoak aztertu eta garbitzea, udalaren ondasunak ongi isla ditzaten.*

- *Beharrezkoak diren higiezinaren amortizazio-ak diruz hornitzea.*

V.4.3. Alderdi orokorrak.

- *Aurrekontua betetzeko oinarriak prestatu eta onestea legedi indardunean ezarritako epeetan.*

- *Gastuak eta dirusarrerak kontabilizatu behar dira sortzapenaren printzipioa behar bezala apli-katuz.*

- *Aurrekontu-aldaketen espedienteak behar bezala osatzea. Betiere, idatzizko txostena egin beharko da, eta aurrekontu-aldaketak NAO n argi-taratu beharko dira, legeak horretara behartzen duenean. Haien kontabilizazioaren, osaketaren eta onespeneraren artean ezin izanen da denbora-des-doikuntzarik izan.*

- *Arauetan ezarritako epeetan igortzea Dirubil-ketaren Agentziari berankorren saldoak igortzea .*

- *Kutxako kontaketak behar bezala dokumen-tatuta eta berrikusita egitea.*

Francisco Javier Sesma Masa auditorea ardu-ratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapide-ak bete ondoren.

Iruñean, 2007ko urriaren 1ean

Lehendakaria, Luis Muñoz Garde

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 47,00 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,25 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,40 »	